## 2018 jarraipen-txostena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# ENPLEGU
# PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# Aurkibidea


| ATALA | ORRIALDEA |
|---|---|
| 1) Sarrera. Testuingurua | 3 |
| 2) 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren oinarrizko elementuak | 6 |
| 3) Erabilitako jarraipen-metodologia | 14 |
| 4) 2018. urteko aurrekontu-exekuzioaren eta lortutako inpaktuaren ikuspegi orokorra | 18 |
| 5) 2018. urtean gauzatutako ekintzen ikuspegi xehatua | 25 |
| 6) Genero- eta adin-ikuspegia | 111 |
| 7) Planaren testuinguru-adierazle orokorren bilakaera | 114 |
| 8) Ondorioak eta balorazio orokorra | 117 |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 1- Sarrera. Testuingurua

# Sarrera

Oraingo egoera sozioekonomikoan, eta zenbait urtetan finantza-, industri- eta enplegu-krisia izan ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko adierazle makroekonomikoek susperraldi fasea islatzen dute. Fase hau oraindik hasiberria da eta sendotu behar da euskal gizarte osoraino heldu dadin.

Ildo horretatik, nahitaezkoa da, besteak beste, egitura-arazoei ekitea, hala nola, gazteen eta adin gehiagokoen langabezia. Erabakitasunez eta abileziaz ekiten ez bada, kolektibo hauen egoera kroniko bihurtzeko arriskua handia da.

Beste alde batetik, gure gizartea inguru soziolaboral eta ekonomiko konplexu eta aldakorrean murgilduta dago. Horregatik inguru hori ezagutu eta analisi zehatza egitea funtsezkoa da politika publikoetan erabakiak hartzeko enplegu eremuan.

Testuinguru honetan eragin erabakigarria dute faktore hauek esaterako: globalizazio prozesuen ondorioz sistema ekonomikoetan ematen diren aldaketak; ekonomien bilakaera eta joerei buruzko ziurgabetasunak; enpresa-kudeaketa ereduen aldaketak; prozesu demografikoak; elektronika, informazio eta komunikazio teknologien eragina; ezagutzaren gizartearen hazkuntza; lan-prozesu eta enpleguen edukien aldaketak, eta baita ere gaitasun tekniko eta zeharkako gaitasun berrien beharra. Hauen eragin sakona dela eta, beharrezkoa da hauei ekin aurretik partekatutako eta diziplina anitzeko hausnarketa sakona egitea, aldi berean etorkizuneko hipotesiak ezartzearen zailtasuna onartuz kasu askotan izaera oso disruptiboa izan dezaketen elementuen aurrean.

Adierazi den bezala, zalantzarik gabe enplegua da hiritarrak gehien kezkatzen dituen arloetako bat gizartearengan duen eragin orokorra dela eta; hau horrela izanda, lehen mailako lehentasun politikoa da.

Enplegu-politikak buruzagitza soziala eskatzen du, instituzioen eskumenekoa eta garrantzi handia hartzen duena, funtsezkoa baita gure herrialdearen lehiakortasun estrategiaren zati gisa eta bere tresnak oinarrizkoak baitira hazkuntza ekonomiko jasangarria lortzeko eta gizarte-egonkortasun eta -kohesiora iristeko. Ikuspegi ekonomiko eta sozial hau estrategia terminoetan adierazi behar da. Estrategia horrek honako zereginak bete behar ditu: gizarte multzoarentzat erreferentzia izan, ekoizpen-sistemaren garapenerako eremurik egokiena ekarri, eta gizarte- eta ekonomia-eragileen topaketa ahalbidetu helburu eta gidalerro komunen inguruan politika, gizarte, lan, hezkuntza eta enpresa-ekintzarako.

Helburu horrekin, Euskadiko Hirutariko Elkarrizketa Mahaian gogoeta egin eta estrategia berri bat diseinatzeko beharra adostu zen 2015ean, aurrekoaren indarraldia amaitu eta enplegu-politika aktiboen transferentzia prozesua burutu eta gerorako. Akordio horren ondorioz, 2016eko lehen seihilekoan asmo handiko lan-prozesua garatu zen, partaidetza zabaleko ideian. Prozesu honi esker Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 (aurrerantzean, EEE 2020) zehaztu zen honakoen emaitza zena: azpimarratu beharreko erronka eta alderdi erabakigarriei buruzko adostasun zabala; enplegu gehiago eta hobea sortzeko oinarri diren indarrak eta aukerak; eta aurre egin beharreko ahultasun eta mehatxuak; guzti hori 2020 urtera begira.

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak jarduera-mailan zehazten ditu EEE 2020ak xedatutako gidalerroak Eusko Jaurlaritzan enplegua sustatzeko zerbitzu eta programak gauzatzen dituzten sail ezberdinentzat tresna izan daitezen, beti enplegua ikuskera zabalean hartuta, lana, hezkuntza eta sustapen ekonomikoei lotutako dimentsioak ere barne hartzen dituena.

Azpimarratu behar da ere Enplegu Plan hau 2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaren funtsezko osagaia dela. Programa honek suspertze ekonomikorako dimentsioan Eusko Jaurlaritzak berrikuntza, nazioartekotze, industrializazio eta inbertsio eremuetan garatuko dituen oinarrizko lerro estrategikoak jasotzen ditu ere. Guzti horrek enpleguari lotutako 2 oinarrizko helburu ditu: Euskadin langabezia murriztu %10aren azpitik 2020an eta 2017-2020 epean 20.000 gazteei enplegu aukera ematea. *(Ikus txosten osoa ondorengo estekan*

Beraz, nagusiki dokumentu betearazlea da eta EEE 2020 lantzean garatutako adierazpen estrategikoa zehazten du. Estrategia bezala, partaidetza-prozesu baten bidez landu da hauen ekarpenei esker: gizarte-eragileak, beste instituzioak (Foru Aldundiak eta Udalak) eta enpleguaren arloari bereziki lotutako beste eragileak.

2017ko azaroak 28an Gobernu Kontseiluak 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa onetsi zuen. Maila operatiboan, Planaren hedapen eta jarraipenari dagokionez, Plana zehazteko 2018, 2019 eta 2020 urteetarako Ekintza Plan Operatiboak definitzen dira. Plan hauek berariazko helburuak eta aurrekontu zehatzak jasoko dituzte, EAEren aurrekontuetan islatzen direnak eta Planaren egituran zehaztutako operazio-eremuak eta ekintza-lerroak mantenduz. 2017ak ez du Urteko Ekintza Plan espezifikorik izan.





ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 2- 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren oinarrizko elementuak

# Helburu estrategikoak

2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programarekin, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020rekin eta dokumentu honetan jasotako beste programa- eta diagnostiko-alderdiekin koherentzian, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak honako helburuak proposatzen ditu:

- Kalitatezko enplegua sustatu, egoera ahulagoan dauden pertsonei eta euskal gazteei garrantzi berezia emanda.
- Laneratzea sustatu tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez.
- Enplegurako prestakuntza sustatu, langabeen eta landunen artean; horri lotuta, irizpide nagusitzat hartu behar da jakintza-ekonomian gaitasunak direla enplegu-bermerik handiena.
- Ekintzailetza era integralean sustatu, gure gizartean duen garrantzia estrategikoari balioa emanez.
- Honako hauek baliatu: garapen turistiko jasangarriak enplegua sortzeko duen gaitasuna, tokiko merkataritzaren finkapena, sektore primarioaren modernizazioa eta gizarte-ekonomiaren eta sektore publikoaren garapena.
- Etxebizitzak eta tresneria publikoa birgaitzeko Renove programen aktibazioa lortu, enplegua sortzeko jarduera trinkoak direla egiaztatuta.
- Enpresarekin konektatuago dagoen hezkuntza-sistema batean sakontzen jarraitu, bai gaitasunak lortzeko terminoetan, bai hezkuntza-etapatik etapa profesionalera igarotzeko erraztasunean.
- Beharrezko xedapen eta baldintzak zaindu eta eratu enpleguaren kalitatea hobetzeko, egonkortasun, seguritate eta karrera profesional motibatzaile eta gogobetegarrien garapen aukerei dagokienez euskal langileentzako, halaber, langileek kudeaketa, mozkin eta jabetasunean parte-hartzeko aukera errazteko.
- Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren balio ekarpena hobetu euskal enplegu-politikaren tresna operatibo gisa, pertsona eta enpresentzako zerbitzu integratuagoak eskain ditzan, “ibilbide” kontzeptua bereziki azpimarratuz.

Zeharkako eran, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak arreta berezia ematen dio emakumeek jarduera ekonomiko eta laboralean baldintza berdintasunakin osotara parte-har dezaten indartzen duten neurriei.

Aurreko 2014-2016 Enplegu Planaren aldera berrikuntza nagusiena hau da: enpleguaren kalitatea eta Euskal Enplegu-sistemaren hobekuntzari lotutako helburuak gehitzea; helburu hauek enplegua sortzeko mantentzen diren xedeen (“enplegu gehiago”) osagarri dira.

Helburu berri hauek euskal lan-merkatuaren testuinguru berriari erantzuna ematen diote, enplegua sortzeko etorkizun mesedegarriarekin, baina baita arrisku bikoitzarekin ere:

- Enplegua sortzea ez dadin aldi berean enpleguaren kalitatearen suspertzearekin bat etorri, batez ere behin-behinekotasun eta eskatu ez den partzialtasun tasatan.
- Enplegua sortzeak ez ditzan egiazko aukerak ekarri gaur egun enplegagarritasun gutxiagoko pertsonentzat, nagusiki beren kualifikazio eskasak edo zaharkituak izateagatik, haien prestakuntzan gehiegizko trebetasuna jaso izanaren problema gutxietsi gabe. Aukera hauek kolektibo horiei heltzean lortzeko beharrezkoa da, alde batetik, pizgarrien eskaintza azpimarratzea langabekoen artean baldintza mesedegarriagoetan egon daitezen; beste aldetik, Euskal Enplegu-sistema baliozko zerbitzuak eskaintzeko gai izan dadin, gure ekoizpen-sarearen benetako premiei erantzuten dieten, eta esku-hartze pertsonalizatuaren eta laneratzeko ibilbide kontzeptu logikatik eskainitako zerbitzuak.

# Helburu estrategikoen kuantifikazioa

Lehenago adierazitako helburu estrategikoak kuantitatiboki lortu beharreko 3 helburu nagusitan zehazten dira:

Egungo langabezia tasa denboran zehar murriztu, 2020ko azkeneko hiruhilekoan %10etik beherakoa izan dadin.

2017-2020 epean zehar 58.000 (*) enplegu sustatu honakoen bitartez: enpresa berrien sorrera, enplegu-aukera gutxiago dituztenak kontratatzeko pizgarriak abiaraztea, eta birgaitzearen sustapen publikoa enplegu-sorrerarako sektore intentsibo gisa.

2017-2020 epean zehar 20.000 gazteei lan aukera eskaini.

* Hasieran 45.000 lanpostu aurreikusten ziren. Hasierako aurreikuspen honetara, 13.000 enplegu gehitu dira, Administrazio Orokorrean, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Ertzaintzan aurreikusitako postuei gehitu zaizkien posizioak.

# Jarduera-ildoak

9 esparru operatiboak 35 jarduera-ildotan zabaltzen dira. Ondoren aurkezten da hauen eskema, eta hauen helburuak ekimen lehenetsiak eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak 7. atalean zehazten dira. Genero-ikuspegia islatuta geratzen da barneratu den zeharkako jarduera-ildo espezifikoaren bidez.

| JARDUERA ESPARRUAK | JARDUERA-ILDOAK |
|---|---|
| **1. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA** | 1.1- Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa eta zailtasunak dituzten enpresa txiki eta ertainei arreta |
| | 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea |
| | 1.3- Landa eta kosta inguruan enplegua sustatzea |
| | 1.4- Gizarte ekonomian enplegua sustatzea |
| | 1.5- Turismo sektoreko enplegua sustatzea |
| | 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan |
| **2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | 2.1- Ekintzailetza berritzailea eta intraekintzailetza sustatzea |
| | 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzea |
| **3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA** | 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea |
| | 3.2- Lehen Aukera Programa |
| | 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea |
| | 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak |
| | 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak |
| | 3.6- Gazteen itzulera sustatzea |
| | 3.7- Talentu gaztea |
| | 3.8- Prestakuntza duala |
| | 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza |

| JARDUERA ESPARRUAK | JARDUERA-ILDOAK |
|---|---|
| **4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | 4.1- Langabeen prestakuntza |
| | 4.2- Kontratazio konpromisodun prestakuntza |
| | 4.3- Landunentzako prestakuntza |
| **5. LANERATZEKO PIZGARRIAK** | 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu planak |
| | 5.2- Egoera ahuleko edo enplegagarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea |
| | 5.3- Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzea/gizarteratzea |
| | 5.4- Familia bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak |
| **6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK** | 6.1- RENOVE Etxebizitza |
| | 6.2- RENOVE Azpiegiturak |
| **7. ENPLEGU PUBLIKOA** | 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea |
| **8. ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA** | 8.1- Elkarrizketa soziala eta parte hartzea sustatzea |
| | 8.2- Gizarte eta enpresa erantzukizuna sustatzea eta langileen partaidetza enpresan sustatzea |
| | 8.3- Gizarte ekonomiaren aldeko apustua |
| | 8.4- Kalitateko enplegua, enplegu segurua |
| **9. EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN HOBEKUNTZA** | 9.1- Lanbide eraberritzea eta modernizatzea |
| | 9.2- Enplegu arloko behaketa eta prospekzio lana hobetzea |
| | 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea |
| **ZEHARKAKOA** | Emakumeen enplegagarritasunaren hobekuntza |

Oharra: Hasiera batean, 6. esparru operatiboak, Renove Errehabilitazio programei dagokionak, 3 jarduera-ildo zituen (6.1- Renove Etxebizitza; 6.2- Renove Ikastetxeak; eta 6.3- Renove Osasuna). 2018an “6.1 Renove Etxebizitza” ildoa mantentzea eta besteak ildo bakarrean, “6.2- Renove Azpiegiturak”, biltzea erabaki zen. Horrela, hainbat arlo eta azpiegituratan egiten ari diren birgaitze proiektuak jarduera-ildo berriaren parte izango lirateke (ikastetxeak, osasun zentroak, industrialdeak eta enpresa parkeak,...).

# Baliabide ekonomikoak

**2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren aurrekontua**ren estimazioa **1.175 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako**, esparru operatiboen arabera honela banatuak (*):

| | | |
|---|---|---|
| **1. Eremu eragilea** | **ETEak, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA** | **63 M€** |
| **2. Eremu eragilea** | **EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **86 M€** |
| **3. Eremu eragilea** | **GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA** | **99 M€** |
| **4. Eremu eragilea** | **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **282 M€** |
| **5. Eremu eragilea** | **LAN MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZAK** | **298 M€** |
| **6. Eremu eragilea** | **RENOVE ERREHABILITAZIO-PROGRAMAK** | **347 M€** |

*(*) 7. (Enplegu publikoa), 8. (Enpleguaren kalitatearen hobekuntza) eta 9. (Euskal Enplegu Sistemaren hobekuntza) esparru eragileak ez dira kontuan hartuko aurrekontuari dagokionez, izan ere, neurri handi batean 1. kapituluko aurrekontuarekin bat datoz eta kapitulu hori ez dago gainera esparru eragileen barne.*

2017rako aurrekontua 288 milioi eurokoa da, EAEko 2017ko Aurrekontu Orokorretako 210. Programan (Enplegu Plana) jasotako aurrekontuko partiden arabera; bertan, horien xehetasunak ikus daitezke (kontuan hartu behar da zifra horrek ez duela barne hartzen 2017. urterako 1,2 milioi euro gehigarriko aurrekontu-aldaketa, 2017ko ekainaren aurrekontu-eztabaidan onartu zen zuzenketaren ondoriozkoa dena, koherentzia mantendu nahi izan delako 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan aurreikusitako zifrekin).

2018, 2019 eta 2020 ekitaldietarako aurrekontuen aurreikuspenei dagokienez, batez besteko % 1,2ko hazkundea estimatu da, betiere ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen onarpenaren mende. Mobilizatutako baliabide pribatuen kuantifikazioa Planaren jarraipen- eta ebaluazio-dinamiken atal gisa jasoko da (ikus Planaren Gobernantza Eredua - Kontuak ematea atala).



# Aurreikusitako inpaktua

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoak honako inpaktuak aurreikusi ditu Euskadiko lan-merkatuan:

- Enplegua sortzea.
- Dagoen enplegua mantentzea, bereziki zailtasunak dituzten sektoreen eta enpresen kasuan.
- Enplegagarritasuna areagotzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Euskal Enplegu Sistema hobetzea, bereziki Lanbidetik eskainitako zerbitzuen kasuan.

Ondoren ageri dira Planak, 2017-2020 aldirako, aurreikusi dituen inpaktu kuantitatibo nagusiak.

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

**Laguntzei esker sortutako 58.000 lanpostu (*)**

Enpresa berrien sorrerari esker sortutako **12.000** lanpostu.

Etxebizitzen eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoekin lotutako **15.000** lanpostu.

Kontratazioa sustatzeko laguntzen bidez kontratatutako **18.000** pertsona.

**13.000** lanpostu Lan Eskaintza Publikoetan (txanda irekia).

**Laguntza jaso duten 6.000 enpresa berri**

**5.000** mikroenpresa eta autonomo berri.

**1.000** enpresa berritzaile berri.

**20.000 gazte lan-aukera batekin**

**3.000** pertsona gazte beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako kontratatuak, lehen lan-aukera jasotzeko (Lehen Aukera).

**5.000** gazte hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio esperientzia praktikoarekin.

**3.500** ekintzaile gazte berri.

**2.500** gazte Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatuak.

**3.200** gazte euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak betetzeko.

**400** gazte sektore pribatuko txanda-kontratuen onuradun.

Atzerrian esperientzia eta prestakuntza eskuratu duten **200** gazteren itzulerarako laguntzak.

**1.800** gazte enpresetan esperientzia praktikoa hartzeko beken onuradun.

**400** gazte aukera-esparru espezifikoetan sartu eta profesionalki garatzeko laguntza-programen onuradun.





ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 3- Erabilitako jarraipen-metodologia

# Erabilitako metodologia

Garatutako lanen jarraipena eta kontrola informazio zuzeneko eskaeren bitartez eta ekimenak abian jartzeko erantzukizuna zuten **Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzekin, Sailekin eta/edo Erakundeekin** izandako bileren bitartez burutu dira. Informazio-eskaera hauen xedea izan da **aurreikusitako jarduera-ildoen garapen-maila** alderatzea, burututako jarduera nagusiak, inpaktu-emaitzak eta aurrekontuaren exekuzioa identifikatzearekin batera.

Lehenago aipatu den moduan, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 2018, 2019 eta 2020 urteetarako Ekintza Plan Operatiboetan banatzen da, baina 2017 urterako ez da Urteko Ekintza Plan espezifikorik izan. Horrek esan nahi du jarduera-ildoek ez dutela izan helburu kuantitatibo espezifikorik 2017. urtean zehar, eta ondorioz, burututako jarraipena planteatzeko 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburu orokorren aldeko ekarpena aztertu da. **2018ko Urteko Ekintza Plana bada, beraz, lehenengo ekintza plana, eta baditu urteko helburu espezifikoak, zeinei jarraipena egin zaien.**

**2017-2020 aldirako Enplegu Plan Estrategikoaren aurrerapen-mailaren ikuspegi orokorra izateko helburuarekin, aurrekontu-exekutiboaren eta 2017an eta 2018an lortutako emaitza nagusien kuantifikazioa metatua barneratu da.** Metatutako ikuspegi hori 2017an eta 2018an izandako emaitzak Planaren indarraldiko 4 urteetara estrapolatzearekin batera aurkezten da; horrek helburuen betetze-maila errealaren aurreikuspena izatea ahalbidetzen du. Honela, uler daiteke % 50 inguruko aurrerapen-mailak 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuen erabateko betetzea ekarriko lukeela.

Halaber, jarduera-ildoen garapen-mailaren analisia ere burutu da, generoaren eta adinaren ikuspegitik, eta horren emaitzak 6. atalean, Genero- eta adin-ikuspegian, azaldu dira.

Hurrengo orrialdean ageri dira Planaren jarduera-ildoetan aurreikusitako ekintzen erantzukizuna duten Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak, Sailak eta/edo Arloak.

# Jarduera-ildo bakoitzaren erantzule diren sailak eta zuzendaritzak

| JARDUERA-ILDOAK | SAIL ERANTZULEA | ZUZENDARITZA ERANTZULEA |
|---|---|---|
| 1.1- Enpresa txiki eta ertainen finantzaketa eta zailtasunak dituzten enpresa txiki eta ertainei arreta | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | Garapen Industriala |
| | Ogasuna eta Ekonomia | Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideak |
| 1.2- Tokiko merkataritzan enplegua sustatzea | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | Merkataritza |
| 1.3- Landa- eta kosta-inguruan enplegua sustatzea | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | Landa eta Kostalde Eremuen Garapena eta Europako Politikak |
| 1.4- Gizarte-ekonomian enplegua sustatzea | Lana eta justizia | Gizarte Ekonomia |
| 1.5- Turismo-sektoreko enplegua sustatzea | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | Turismoa |
| 1.6- Enplegua berariaz sustatzea egoera ahulagoan dauden eskualde eta udalerrietan | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | Garapen Industriala |
| 2.1- Ekintzailetza berritzailea eta intraekintzailetza sustatzea | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak - SPRI | Garapen Industriala |
| | | Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazio Gizartea - SPRI |
| 2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.1- Hezkuntzatik lanera igarotzea | Hezkuntza | Lanbide Heziketa |
| | | Unibertsitateak |
| 3.2- Lehen Aukera Programa | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.3- Gazte ekintzaileei laguntzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.4- Gazteei zuzendutako tokiko enplegu-planak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.5- Eraberritzeko edo erreleborako programak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 3.6- Gazteen itzulera sustatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Gazteria |
| 3.7- Talentu gaztea | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | Nazioartekotzea |
| | Beste sailak | Talentu gaztearen ekimenekin lotutako beste zuzendaritzak |
| 3.8- Prestakuntza duala | Hezkuntza | Lanbide Heziketa |
| | | Unibertsitateak |
| 3.9- Gazteen enplegurako prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |

| JARDUERA-ILDOAK | SAIL ERANTZULEA | ZUZENDARITZA ERANTZULEA |
|---|---|---|
| 4.1- Langabeen prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 4.2- Kontratazio-konpromisodun prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 4.3- Landunentzako prestakuntza | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Prestakuntza |
| 5.1- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.2- Egoera ahuleko edo enplegagarritasun txikiagoko kolektiboen laneratzeko pizgarriak ematea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.3- Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza eta laneratzea/gizarteratzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide - Enplegua |
| 5.4- Familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko laguntzak | Enplegua eta Gizarte Politikak | Familia |
| | | Lanbide - Enplegua |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza | Etxebizitza |
| 6.2- RENOVE Azpiegiturak | Hezkuntza | Baliabide Materialak eta Azpiegiturak |
| | Osasuna | Osakidetza |
| | Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak | Garapen Industriala |
| 7.1- Administrazio publikoak eraberritzea | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | Funtzio Publikoa |
| | Beste sailak | Lan Eskaintza Publikoak kudeatzeko gaitasuna duten beste zuzendaritzak |
| 8.1- Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea sustatzea | Lana eta justizia | Lana eta Gizarte Segurantza |
| 8.2- Gizarte- eta enpresa-erantzukizuna sustatzea eta langileen partaidetza enpresan sustatzea | Lana eta justizia | Gizarte Ekonomia |
| 8.3- Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua | Lana eta justizia | Gizarte Ekonomia |
| 8.4- Kalitateko enplegua, enplegu segurua | Lana eta Justizia - Osalan | Lana eta Gizarte Segurantza - Osalan |
| 9.1- Lanbide eraberritzea eta modernizatzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| 9.2- Enplegu-arloko behaketa eta prospekzio-lana hobetzea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| | Beste sailak | Beste zuzendaritzak |
| 9.3- Enpleguari lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazio sakonagoa egitea | Enplegua eta Gizarte Politikak | Lanbide |
| | Beste sailak | Beste zuzendaritzak |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 4- 2018. urteko aurrekontu-exekuzioaren eta lortutako inpaktuaren ikuspegi orokorra

# Helburu estrategikoak lortzeko aurrerapen-maila

| 2017-2020 HELBURU ESTRATEGIKOEN AURREIKUSITAKO KUANTIFIKAZIOA | HELBURUEN KUANTIFIKAZIO ERREALA 2018/12/31 DATAN | 2017-2020 HELBURU ESTRATEGIKOAK LORTZEKO AURRERAPEN MAILA |
|---|---|---|
| Langabezia-tasa **% 10etik behera** 2020ko azken hiruhilekoan | Langabezia-tasa: % 10,3 (2017ko IV. hiruhilekoa. Eustat) | **2,3 puntu portzentualeko ekarpena langabezia-tasa murrizteko, abiapuntuko egoerarekin alderatuta (% 12,6 2016ko IV hiruhilekoan).** Joera hau mantenduko dela kalkulatuta, aurreikusitako langabezia-tasaren helburua 2020. urtean lortuko litzateke. |
| Laguntza bidezko **58.000 lanpostu** sortzea 2017-2020 aldian zehar (*) | Laguntzei esker sortutako 34.143 lanpostu 2017 eta 2018 urteetan | **2017-2020 aldirako aurreikusitako enpleguen % 59 sortzeko ekarpena.** 2019an zehar antzeko egoera bat urtero kalkulatuta, 2020an enplegu-sorrerarako helburu orokorra bete eta gainditu egingo litzateke. |
| Lan-aukera **20.000 gazteri** 2017-2020 aldian zehar | 17.115 gazte lan-aukerarekin 2017 eta 2018 urteetan | **2017-2020 aldirako aurreikusitako gazteei zuzendutako lan-aukeren % 86 eskaintzeko ekarpena.** 2019aren antzeko egoera bat urtero kalkulatuta, 2020an enplegu-sorrerarako helburu orokorra bete eta gainditu egingo litzateke. |

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

# Inpaktu-emaitzak 2018. urtean

2018. urtean izandako Planean aurreikusitako jarduera-ildoen garapen mailari esker, **18.344 lanpostu sortu dira laguntzei esker eta 1.970 enpresa sortzea lortu da.**

**Emaitza hauek, 2017an lortutakoei gehituta (laguntzei esker sortutako 15.799 enplegu eta sortutako 1.557 enpresa), 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako laguntza bidez sortutako enpleguen helburuaren % 59 betetzea eta enpresa berrien sorrerarako helburuaren % 59 betetzea dakarte.** Emaitza hauek planaren irismen-alditik geratzen diren 2 urteetan zehar proiektatzen badira, helburuen betetze-mailaren erritmoa mantenduko dela jota, % 100etik gorako helburuen betetze-maila aurreikus daiteke, laguntza bidez sortutako lanpostuei zein sortutako enpresa berriei dagokienez ere.

Helburuen betetzea planteatzen da 2017-2020 aldirako aurreikusitako emaitza orokorren aurrerapen-mailaren edo ekarpenaren arabera, izan ere, 2017-2020 Enplegu Planak inpaktu-aurreikuspen orokorra burutu zuen Planaren iraunaldiko 4 urteetarako. 2017 eta 2018an lortutako emaitzak oinarri hartuta, inpaktuaren estrapolazio bat burutu da 4 urteetarako, emaitzen interpretazioa errazte aldera. Honela, uler daiteke % 25 inguruko urteko aurrerapen-mailak urte bakoitzeko helburuen erabateko betetzea ekarriko lukeela eta, ondorioz, 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuen betetzea ere. 2017 eta 2018 urteak kontutan hartuta, % 50 inguruko aurrerapen-mailak aldia amaitzerakoan aurreikusitako helburuak betetzea ekarriko lukeela uler daiteke.

| 2017-2020 ALDIRAKO AURREIKUSITAKO INPAKTU EMAITZAK | Inpaktu-adierazleak | 2017-2020 aurreikusitako inpaktua | Emaitzak 2017/12/31 datan | Emaitzak 2018/12/31 datan | 2017-2018 aldirako emaitza metatua | 2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen-maila** | 2017ko aurrerapen-maila 2017-2020 aldira estrapolatzea*** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Laguntzei esker sortutako 58.000 lanpostu (*)** | Enpresa berrien sorrerari esker sortutako lanpostuen kopurua | 12.000 | 3.713 | **3.904** | **7.617** | 63% | 126% |
| | Etxebizitzen eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoekin lotutako lanpostuen kopurua | 15.000 | 3.214 | **3.754** | **6.968** | 46% | 92% |
| | Kontratazioa sustatzeko laguntzen bidez sortutako lanpostuen kopurua | 18.000 | 4.651 | **6.324** | **10.975** | 61% | 122% |
| | Lan Eskaintza Publikoetan (txanda irekia) barne hartutako lanpostuen kopurua | 13.000 | 4.221 | **4.362** | **8.583** | 66% | 132% |
| | **Laguntza bidez sortutako lanpostuak guztira** | **58.000 (*)** | **15.799** | **18.344** | **34.143** | **59%** | **118%** |
| **Laguntza jaso duten 6000 enpresa berri** | Mikroenpresa eta autonomo berrien kopurua | 5.000 | 1.278 | **1.658** | **2.936** | 59% | 118% |
| | Enpresa berritzaile berrien kopurua | 1.000 | 279 | **312** | **591** | 59% | 118% |
| | **Lagundutako enpresa berrien kopurua** | **6.000** | **1.557** | **1.970** | **3.527** | **59%** | **117%** |

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

** % 50k edo % handiagoak 2017-2018 aldiko helburu metatuak bete direla esan nahi du

*** helburuen betetzearen aurreikuspena 4 urteetarako



Gazteen enpleguaren ikuspuntutik, **10.259 gaztek izan dute lan-aukera bat 2018an hainbat programari esker,** besteak beste, beren titulazioarekin lotutako lanpostuetarako enpresen aldetiko kontratazioa, ekintzailetza gaztea, hezkuntza-arlotik lan-mundura igarotzeko lehenengo esperientzia, nazioarteko esparruan esperientzia praktikoa lortzeko bekak eta langileen berrikuntza Lan Eskaintza Publikoen eta txanda-kontratuen bidez.

Emaitza hauek, 2017an lortutakoekin batera (6.856 gazte), % 86ko ekarpena egiten diote 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuei, beraz, planaren irismen-alditik geratzen diren 2 urteetan zehar estrapolatuta, estima daiteke gazteen enpleguarekin lotutako emaitzek erritmo horretan jarraituz gero, 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuak bete eta gainditu egingo liratekeela.

## 2017-2020 ALDIRAKO AURREIKUSITAKO INPAKTUA GAZTEEN ENPLEGUAN

**20.000 gazte lan-aukera batekin**

| Inpaktu-adierazleak | Impacto previsto 2017-2020 | Emaitzak 2017/12/31 datan | Emaitzak 2018/12/31 datan | 2017-2018 aldirako emaitza metatua | 2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen-maila* | 2017ko aurrerapen-maila 2017-2020 aldira estrapolatzea** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lehen Aukera programaren bidez kontratatutako gazteen kopurua | 3.000 | 498 | **309** | **807** | 27% | 54% |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-programan parte hartu duten gazteen kopurua | 5.000 | 2.166 | **4.938** | **7.104** | 142% | 284% |
| Gazte ekintzaileen kopurua | 3.500 | 847 | **1.050** | **1.897** | 54% | 98% |
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako gazteen kopurua | 2.500 | 834 | **1.088** | **1.922** | 77% | 154% |
| Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako gazteei zuzendutako lanpostuen kopurua | 3.200 | 1.868 | **2.045** | **3.913** | 122% | 244% |
| Txanda-kontratuen onuradun izan diren gazteen kopurua | 400 | 31 | **47** | **78** | 20% | 40% |
| Gazteen itzulerarako programan parte hartu duten gazteen kopurua | 200 | Inicio en 2018 | **6** | **6** | 3% | 6% |
| Prestakuntzarako eta enplegurako beketan parte hartu duten gazteen kopurua | 1.800 | 612 | **743** | **1.355** | 75% | 150% |
| Sektore espezifikoei zuzendutako laguntza-programen onuradun izan diren gazteen kopurua | 400 | Inicio en 2018 | **33** | **33** | 8% | 16% |
| **Lan-aukera bat izan duten gazteak guztira** | **20.000** | **6.856** | **10.259** | **17.115** | **86%** | **172%** |

* % 50k edo % handiagoak 2017-2018 aldiko helburu metatuak bete direla esan nahi du

** helburuen betetzearen aurreikuspena 4 urteetarako

# 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak

Enplegurako Planaren aurrekontu-exekuzioa 2018. urtean zehar **305 M €**-koa izan da; hau da, **2018rako aurreikusita zegoen aurrekontuaren % 103**. **2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, aurrekontu-exekuzioak 2017-2020 aldirako aurreikusitako guztizkoaren % 49 suposatuko luke.**

**Ekintza-arlo guztiek aurrerapen-maila handia ageri dute 2018ko urteko aurrekontu-exekuzioan.** Exekuzio-maila altuena izan duen arloa gazte enpleguaren sustapena izan da (% 119); lan-munduan txertatzeko pizgarriek (% 108) eta enplegurako prestakuntzak (% 107) jarraituta. Beste arlo guztiek % 90eko edo gehiagoko aurrekontu-exekuzio maila izan dute.

| ESPARRU OPERATIBOAK | 2017-2020 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €) | Recursos económicos ejecutados 2017 (M€) | Exekutatutako baliabide ekonomikoak 2017/12/31 datan (M €) | Exekutatutako baliabide ekonomikoak 2018/12/31 datan (M €) | 2017-2018 aldian exekutatutako baliabide ekonomiko metatuak | 2018ko exekuzio-maila 2018rako aurreikuspenaren arabera (%) | 2017-2020 aldirako exekuzio-maila metatua, 2017-2018 aldirako aurreikuspen orokorraren arabera (%) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA | 63 M€ | 14 M€ | 21 M€ | **18 M€** | **32 M€** | 88% | 51% |
| 2. EKINTZAILETZA SUSTATZEA | 86 M€ | 19 M€ | 21 M€ | **19 M€** | **38 M€** | 90% | 43% |
| 3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA | 99 M€ | 20 M€ | 35 M€ | **42 M€** | **62 M€** | 119% | 62% |
| 4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 282 M€ | 55 M€ | 61 M€ | **65 M€** | **120 M€** | 107% | 43% |
| 5. LANERATZEKO PIZGARRIAK | 298 M€ | 78 M€ | 76 M€ | **82 M€** | **160 M€** | 108% | 54% |
| 6. RENOVE BIRGAITZE-PROGRAMAK | 347 M€ | 83 M€ | 83 M€ | **79 M€** | **162 M€** | 95% | 47% |
| **TOTAL** | **1.175 M€** | **269 M€** | **297 M€** | **305 M€** | **574 M€** | **103%** | **49%** |

*(*) 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuak ez du barne 2017rako 1,2 milioi euro gehigarriko aurrekontu-aldaketa, 2017ko ekaineko aurrekontu-eztabaidan zuzenketa bidez onartu zena, koherentzia mantendu nahi baita 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan aurreikusitako zifrekin.*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU**
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 5- 2018. urtean gauzatutako ekintzen ikuspegi xehatua

### 1. Jarduera Esparrua

# ETEAK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Erakundeen lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua beren bideragarritasunaren inguruko egoera eta arazo jakinak konpontzeko laguntza espezifikoa behar duten enpresei zuzendutako **arretan, aholkularitzan eta kudeaketa-zerbitzuetan.** | ▪ Laguntza-programen sostengua jaso ez duten jardunak honako alorretan: lan-harremanak, inbertitzaileen bilaketa eta inbertitzaileekin harremana ezartzea enpresak aurrera ateratzeko, zerga-zorra geroratzeko erraztasunen azterketa, finantzaketa-bide berriak, akordioak hartzekodunekin eta/edo hornitzaileekin, etab.<br>▪ Zailtasunak dituzten 53 enpresari arreta eta aholkularitza, 9.096 enpleguren mantentzea ahalbidetuz. |
| Zailtasunak dituzten ETEi laguntza emateko Bideratu Berria programa, krisian dauden enpresek beraiek epe ertainerako eta luzerako bideragarritasuna berreskuratzeko helburuarekin diseinatutako berregituratze-planetan barne hartutako **izaera industrial eta ekonomikoko berregituratze- eta berrabiada-neurrien exekuzioa sustatzen** duena. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen, eta programaren laguntzen ezaugarriak eta zenbatekoak mantendu ziren aurreko urteko deialdiarekin alderatuta. |
| Luzaro BEI-rekin lotutako ETEen inbertsiorako eta finantza-berregituratzerako laguntza, inbertsioen finantzaketa, berrikuntza teknologikoko proiektuak, finantza-sendotzea eta enpresa-hazkundearekin lotutako aktibo zirkulatzailearen finantzaketa sustatzeko **partaidetza-maileguak emanda.** | ▪ 2012an Luzaro E.F.C-rekin izenpetutako hitzarmenaren luzapena eta 2018rako Finantza Lankidetzarako Hitzarmenaren prezioen urteroko egokitzapena.<br>▪ Programaren jarraitutasuna, urte osoan zehar irekita mantendu dena.<br>▪ 2019an ekintza positiboko irizpideak barneratzeko aurreikuspena, Berdintasun Plana duten enpresei emandako maileguen finantzazio-baldintzak hobetuz. |
| ETEen jarduera produktiboak sustatzeko laguntza, **arrisku partekatuko** (% 60 Eusko Jaurlaritza eta % 40 finantza-erakundeak) **finantza-lankidetzarako hitzarmen** baten bidez, inbertsio-eragiketetarako eta aktibo finkoa edo zirkulatzailea erosteko eragiketetarako. | ▪ 9 finantza-erakunderekin izenpetutako hitzarmenaren luzapena (Kutxabank, Caixabank, Banco Santander, Bankinter, Banco Sabadell, Bankoa, Targobank, Caja Laboral Kutxa eta Caja Rural de Navarra).<br>▪ Azken urteotan, laguntza-lerroan eskaria baxua izan da, besteak beste, antzeko arrisku-mailekin, erakunde pribatuen aldetiko finantzaketa-eskaintza pixkanaka areagotuz joan delako eta barne-izapidetzean hainbat atzerapen gertatu direlako. Arrazoi hori dela eta, 2019an hitzarmena ez luzatzea pentsatu da. |
| Zirkulatzailearen finantzaketarako eta ETEen likidezia-beharrei erantzuteko laguntza, abalak emateko xedearekin **Elkargi Elkar Bermatzeko Sozietatearekin izenpetutako hitzarmen**en bidez. | ▪ Elkargi-rekin sinatutako Berriro Finantzatzeko Oinarrizko Hitzarmenaren eta Hitzarmen Gehigarriaren luzapena. Zirkulatzailearen finantzaketa funts espezifikoa Hitzarmen horietan integratuta dago. Enpresen aldetik eskari gehien eta inpaktu gehien lortzen duen ezaugarri hauetako laguntza-lerroa dela egiaztatu da.<br>▪ 2019an ekintza positiboko irizpideak barneratzeko aurreikuspena, Berdintasun Plana duten enpresei emandako finantzazio-baldintzak eta abalak hobetuz. |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Arreta, aholkularitza eta kudeaketa-laguntza zerbitzuak erraztea enpresei | ▪ 53 lagundutako enpresa<br>▪ 9.096 enplegu mantendu dira laguntza jasotzen duten enpresen bitartez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Diru-laguntzak eman enpresak berregituratu eta berrabiarazteko | ▪ Lagundutako enpresa 1 (Bideratu programa)<br>▪ 150 enplegu mantendu dira laguntza jasotzen duten enpresen bitartez (Bideratu programa)<br>▪ Formalizatutako eragiketak, guztira 1.000.000 € (Bideratu programa) | ▪ Ez da aplikagarria |
| 55 enpresaren hazteko proiektuen finantza-sendotzea eta garapena, lanpostuak mantentzeko. | ▪ 60 lagundutako enpresa<br>▪ 2.935 enplegu mantendu dira laguntza jasotzen duten enpresetan<br>▪ Formalizatutako eragiketak, guztira 17.653.400 € | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 9 gehiago) |
| 900 enpresaren finantza-egitura sendotzea, aktibo finkoa eta zirkulatzailea eskuratu eta lanpostuak mantentzeko. | ▪ 690 lagundutako enpresa (17 enpresari 60/40 lerroaren bidez eta 673 enpresari Elkargirekin sortutako finantzaketa berrirako lerroaren bidez)<br>▪ 14.062 enplegu mantendu dira laguntza jaso duten enpresetan (1.080 enplegu 60/40 lerroari esker eta 12.982 enplegu Elkargi-rekin sinatutako Berriro Finantzatzeko Hitzarmenei esker)<br>▪ Formalizatutako eragiketak guztira 108.481.648 € (2.695.000 € 60/40 lerroari esker eta 105.786.648 € Elkargi-rekin sinatutako Berriro Finantzatzeko Hitzarmenei esker) | ▪ Aurreikusitako enpresen % 77 |

## 1.2 JARDUERA-ILDOA - TOKIKO MERKATARITZAKO ENPLEGUEI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Merkataritza Saltokiak Modernizatzeko programa** (MEC, gaztelaniako akronimoaren arabera), saltokien instalazioak eta ekipamenduak hobetu eta modernizatzeko helburua duena. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Programaren laguntzen ezaugarriak eta zenbatekoak mantentzea aurreko urteko deialdiarekin alderatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, eskarien balorazioan 3 puntu areagotuz baldintza hauetako bat betetzeagatik: Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plana izateagatik, Emakunderen erakunde laguntzailea izateagatik edo lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko Plana izateagatik. |
| Ecommerce programa **merkataritza elektronikoaren** modalitatea saltoki txikietan ezarri eta garatzeko. | ▪ Teknologia berriak eta banaketa-kanal berriak sartzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzeko ekintzen garapena, Internet bidezko salmentak bultzatu ahal izateko saltoki bakoitzaren garapen-mailaren arabera (ezarpena, optimizazioa, salmenta gizarte-sareetan eta kanpoko webguneen bidezko salmenta). |
| **Banaketaren alorreko kualifikazioa** indartzea merkataritza-banaketaren kudeaketarako teknikarien prestakuntza-programari esker. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ 2 hilabeteko merkataritza-banaketaren kudeaketari buruzko prestakuntza espezifikoko ikastaro bat eta 12 hilabetetan zehar Merkataritza Dinamizaziorako Bulegoan edo antzeko erakunde batean burututako praktikaldia uztartzen dituzten kualifikazio-ekintzak.<br>▪ Programa hau 32 urte baino gehiago ez duten gazteei zuzenduta dago. Laguntzen ezaugarriak eta zenbatekoak mantentzea aurreko urteko deialdiarekin alderatuta. |
| Sektorearen profesionalizazio orokorra sustatzea enpresen lehiakortasuna eta kudeaketarako teknika berrien ezaguera hobetzea helburu dituzten **prestakuntza-ekintzei** esker. | ▪ Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin izenpetutako lankidetza-hitzarmena enpresa txikietan merkataritza-banaketaren kudeaketa aurreratuaren programa garatu ahal izateko.<br>▪ “Saltokitik Enpresara” programa, komertzio txikira zuzenduta dagoena, eta merkatarien komertzioa kudeatzeko gaitasuna hobetzea helburu duena.<br>▪ “Agentes” programa, Merkataritza Bulego Teknikoei laguntza pertsonalizatua eta prestakuntza-ekintzak eskaintzeko helburua duena. |
| Sektoreko **belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko** programa, enpresa eskualdatzeak dakartzan prozesuetarako laguntza eta aholkularitza eskaintzeari esker. | ▪ Berriz Enpresa Programa, 3 Merkataritza Ganberekin eta Turismo Zuzendaritzarekin.<br>▪ Programaren jarraitutasuna, urte osoan zehar irekita mantendu dena, eta ebaluazio positiboa jaso duena. |

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Merkataritza ekintzailetza** babesteko programa; pertsona autonomoen, enpresen eta udal proiektuen merkataritza ekintzailetza sustatzeko helburua duena. | ▪ 2018an berria izan den programa; lehenengo deialdia urrian argitaratu zen.<br>▪ Negozio berrien hasiera eta hedapenari eta tokiko erakundeek bultzatutako jarduera proiektuen garapenari laguntza, merkataritza enpresa berrien ezarpena eta posizionamendua sustatzeko.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barneratzea; horretarako, laguntzen zenbateko jakin bat titularrak emakumeak diren enpresen ekintzailetzara zuzenduko da. |

| 2018ko aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 1.125 merkataritza-saltokiren azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatzen laguntzea, sektorean enplegua mantentzen laguntzeko | ▪ 349 merkataritza-saltoki modernizatu dira<br>▪ 1.061 enplegu mantendu dira modernizatutako saltokietan | ▪ Aurreikusitako merkataritza-saltokien % 31 |
| Merkataritza elektronikoa barneratzen laguntzea 800 saltoki txikitan | ▪ 230 saltokik ezarri dute merkataritza elektronikoaren modalitatea (profil aurreratuko 30 saltoki eta hasiera eta hazkuntzako 200 saltoki) | ▪ Aurreikusitako saltokien % 29 |
| Merkataritza-banaketan esperientzia praktikoa ematea 38 gazteri | ▪ 12 gaztek onura atera diote merkataritza-banaketan prestatzeko bekei (5 gizon eta 7 emakume) | ▪ Aurreikusitako gazteen % 32 |
| 15 merkataritza-saltokitan enpresa-transmisioa edo eskuz aldatzen laguntzea belaunaldiz aldatzeko eta sektorean ekiteko | ▪ 20 eskualdatutako merkataritza-saltoki | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 33 gehiago) |
| 200 merkataritza-saltokiren lehiakortasuna hobetzea kudeaketa aurreratuko programen eta gertuko saltokientzako enpresa kudeaketako trebatzeko ekintzen bitartez | ▪ 118 merkataritza-saltokik parte hartu dute kudeaketa hobetzeko programetan | ▪ Aurreikusitako saltokien % 59. Kontutan hartu behar da 2018an zehar ez dela deialdirik egon ezagutza, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna sustatzeko eta hedatzeko programarentzat. |
| Merkataritza ekintzailetza babestea, negozio berrien garapena lagunduz (hasiera eta hedapena) eta merkataritza enpresa berrien ezarpena eta posizionamendua laguntzeko helburuarekin tokiko erakundeek sustatutako ekintza proiektuak bultzatuz | ▪ 221 lagundutako merkataritza-saltoki | ▪ Hasiera batean, helburu hau ez zegoen aurreikusita 2018ko Ekintza Plan Operatiboan. Helburuen betetze-mailaren analisia 2019an barneratzea aurreikusten da |

## 1.3 JARDUERA-ILDOA - LANDA ETA ITSASO INGURUNEETARAKO ENPLEGUARI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko** programa, landa-inguruneak sustatzeari, garatzeari eta dibertsifikatzeari esker, enpresa berrien sorrera, dauden enpresen hazkuntza eta modernizazioa sortzeko inbertsioak eta kontratatziorako pizgarriak bultzatuta (Leader eremuak eta Erein eremuak). | ▪ Deialdien argitalpena 2020 Landa Garapenerako Programaren esparruan, urtarrilean Erein eremuetarako eta maiatzean Leader eremuetarako.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartzea, eskaerak 5 puntu gehigarrirekin sarituta emakumeen kasuan eta laguntzak % 10ean areagotuta emakumeen kontratatziorako. |
| **Aholkularitza eta laguntza** integral eta pertsonalizatua jasotzeko zerbitzua, elikaduraren balio-katean eta landa- eta kostalde-ingurunean jarduera bati ekin nahi dioten pertsonei eta/edo enpresei zuzendutakoa. | ▪ Geroa ekintzailetzari laguntza emateko zerbitzuaren etengabeko jarduera. Zerbitzu hau elikaduraren eta zuraren balio-kateari zuzenduta dago, eraldaketaren, eta merkaturatzearen alorretan, eta baita landa-ingurunean eta kostaldean ezartzen diren proiektuei ere.<br>▪ Lankidetza Foru Aldundiekin Gaztenek zerbitzua kudeatzeko, nekazal-ekoizpenaren alorrean elikaduraren eta zuraren balio-kateko ekintzailetza sustatzeko zerbitzua, alegia. |
| Egungo eta etorkizuneko sektoreko profesionalen trebakuntza eta hobekuntza, sektoreko balio-katearen inguruko oinarrizko ezaguerei buruzko **prestakuntza-ekintza** orokorrekin eta gai espezifikoen inguruko bestelako ekintza intentsiboekin; eta hori guztia modalitate teorikoa prestakuntza praktikoko modalitatearekin konbinatuta. | ▪ Prestakuntza-ekintza trinkoak eman dira (100 ordu baino gehiagoko iraupena izan duten ikastaroak) interes sozialeko gai espezifikoei buruz. Hauen helburua izan da gazteak lehenengo sektorean eta nekazal-esparruan (mahasgintza, enologia, ardiak, baratzegintza eta frutagintza) sartzera animatzea.<br>▪ Etengabeko prestakuntza orokorra eman da nekazaritzako elikagaien esparruaren eta nekazal-eremuaren inguruan. Hauei eskaini zaie aipatutako prestakuntza hori: sektoreko egungo eta etorkizuneko profesionalei, enpresa-proiektu berriak abian jarriz sektorean sartu nahi diren pertsonei eta nekazal-eremuko biztanleei.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barneratzea; emakumeak lehentasunezko kolektibotzat jo dira Feader Funtsez (Landa garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) lagundutako zenbait prestakuntza ekintzatan. |
| Sektore primariora **hurbiltzeko lehen esperientzia praktikoaren** sustapena, sektore horretan sartzen ari diren gazteei zuzendua, 3 eta 6 hilabeteetako beken bitartez nekazaritzako elikagaien esplotazioetan eta/edo enpresetan. | ▪ Ekainean deialdia argitaratu zen, 2020 Landa Garapenerako Programaren esparruan.<br>▪ Lehentasuna nekazari gazteei, sektore primarioan edo nekazaritzako elikagaien sektorean proiektu bati ekin nahi dioten 41 urtetik gorako pertsonak ere barne hartuta. |
| Nekazaritza-sektorean, elikaduraren industrian eta nekazal-esparruan **belaunaldi-aldaketa babesteko** programa, gazteak sektore hauetan barneratzea dinamizatuz eta ezagutza eskualdaketa eta enpresen jarraitasuna sustatuz. | ▪ Nekazaritza-sektorean, elikaduraren industrian eta nekazal-esparruan belaunaldi-aldaketa babesteko programa berri baten oinarri arautzaileak diseinatu dira, lehenengo deialdia 2019an argitaratuko dela aurreikusten da. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Nekazal eta kostaldeko inguruneetan 100 enplegu sortzen laguntzea, gazteengan gehienbat enpresa eta ekintzailetza espiritua piztuz, enpresa berriak abian jarriz eta landa inguruneetan dibertsifikazio ekonomikorako enpresetan inbertsioak eginez. | ▪ Sortutako 188 enpresa berri (8 enpresa Erein Programan + 65 Leader Programan + 115 enpresa (aurreikuspena) Geroa eta Gaztenek Programetan)<br>▪ 281 enplegu enpresa berrietan (45 enpresa Erein Programan + 101 Leader Programan + 31 Geroa Programan 104 Gaztenek Programan) (aurreikuspena)<br>▪ 41 enplegu berri lehendik zeuden enpresen jarduerak dibertsifikatzeari esker (41 enplegu Erein Programan)<br>▪ 32 pertsona kontratatuta landa-ingurunerako eta kostalderako kontratazio-pizgarriei esker (12 pertsona Erein Programan + 20 Leader Programan) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (enplegu sorkuntzaren aurreikuspenaren bikoitza baino gehiago). Helburua betetzeko aurrerapen-maila oso altua da, hasiera batean egindako estimazioak ez zituelako Gaztenek eta Geroa programak kontutan hartzen |
| Sektore primarioaren eta landa ingurunearen lehiakortasuna eta bideragarritasuna areagotzea, sektoreko 5.500 profesional trebatuz eta gaitasunak emanez. | ▪ 4.053 parte-hartzaile prestakuntza-ekintzetan (2.675 gizon eta 1.378 emakume) | ▪ Aurreikusitako profesionalen % 74 |
| Sektore primarioan edo nekazaritzako elikagaien enpresetan lan egiten duten pertsonen gaitasunak edo sektorean sartzen diren nekazari gazteenak hobetzea, ustiategi eta nekazaritzako elikagaien enpresekin trukeak eginez. | ▪ 2018an ez da deialdia egin | ▪ Ez da aplikagarria |
| Nekazaritzako sektorearen eta hark eskaintzen dituen ekiteko aukeren ulermena hobetzea hurbiltzeko 25 diru-laguntzaren bitartez | ▪ 35 gaztek onura atera diote hurbiltze-bekei (23 gizon eta 12 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 40 gehiago, aurrekontu-exekuzio altuagoaren ondorioz) |

## 1.4 JARDUERA-ILDOA - GIZARTE EKONOMIARI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Gizarte-ekonomiako enpresen eraketarako** laguntza integrala eskaintzen duen programa, ekintzaileei laguntza ematen diena proiektuaren definizio eta analisirako eta, aurrerago, abiaraztearen jarraipena burutzeko, betiere enpresen jarraitutasuna mantentzeko xedearekin. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko deialdietako irizpideak mantentzea, ekintzailetza-ildo guztiak gizarte-ekonomiaren arloan barne hartuta.<br>▪ Estaldura enpresa berriei (kooperatibak eta lan-sozietateak) eta baita lehendik zeuden eta enpresa-jarduna zuten erakundeak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko eraldaketa-kasuei ere.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa 1.000 €-tan areagotuz enpresa emakume batek sortzen duenean. |
| Gizarte ekonomiako enpresen **sozietate-oinarria areagotzeko** programa, bazkide berrien sarrera eta lehendik zeuden bazkideak mugagabe egitea sustatuta, hartara kapital-ekarpena burutzea erraztuta. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartzea, bazkide gisa sartu diren emakumeen laguntzak 300 €-tan areagotuta. |
| Krisialdian dauden enpresei (merkataritza-sozietateak) laguntza emateko programa, bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa aztertzeko azterlanen bitartez, jarraitutasuna bermatzeko **gizarte-ekonomiako enpresa bilaka** daitezen. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko deialdietako irizpideak mantentzea. |
| Kooperatiben eta lan-sozietateen **enpresa-kudeaketa hobetzeko** programa, plangintzarako eta kudeaketa aurreraturako tresnak erabiltzeko laguntza teknikoari esker. | ▪ Deialdia abuztuan argitaratu zen.<br>▪ 52 kooperatiba eta lan-sozietateren lehiakortasuna hobetzea kudeaketa-planak, aginte-koadro integralak, merkataritza-kudeaketarako planak eta abar ezartzeari esker. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gizarte ekonomiako 150 enpresa berri sortzen laguntzea | ▪ Gizarte-ekonomiako 128 enpresa berri<br>▪ 348 enplegu laguntza jaso duten gizarte-ekonomiako enpresa berrietan (221 gizon eta 127 emakume) | ▪ Aurreikusitako enpresa berrien % 85 |
| Gizarte ekonomiako enpresetako lan-bazkide mugagabeen oinarria areagotzea, bereziki emakumeen, gazteen, desgaitasunen bat duten pertsonen edota lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean, 200 bazkide berri barneratzen. | ▪ 255 gizarte-kontratu mugagabe guztira (168 gizon eta 87 emakume)<br>▪ 100 gizarte-kontratu mugagabe pertsona gazteentzat<br>▪ 87 gizarte-kontratu mugagabe emakumeentzat<br>▪ 90 gizarte-kontratu mugagabe desgaitasunak edo barneratze-arazoak dituzten pertsonentzat | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 45 gehiago) |
| Eraldaketa prozesuak egiten laguntzea krisialdia bizi duten enpresen gizarte ekonomiako enpresetan edo oinordetza-dinamikak bizi dituzten enpresetan, enpresari jarraitutasuna emateko eta lanpostuei eusteko irtenbide gisa. | ▪ 5 lagundutako enpresa<br>▪ 40 enplegu mantendu dira laguntza jasotzen duten enpresetan (estimazioen arabera) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gizarte ekonomiako enpresak kanpoko finantzazioa lortzea erraztea, txikienak eta barneratze-arloari lotutakoak bereziki, elkarteekin batera lan eginez, 40 enpresarentzako abalak emateko ikerketak aurrera eramanaz. | ▪ Emandako 28 abal (behin behineko datuak)<br>▪ 2.680.000 € emandako abaletan (behin behineko datuak)<br>▪ 16 enpresa emandako abalekin lagunduta (behin behineko datuak) | ▪ Aurreikusitako enpresen % 40 |

## 1.5 JARDUERA-ILDOA - TURISMOAREN SEKTOREKO ENPLEGUEI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
| --- | --- |
| **Produktu turistiko berriak** sortu, abian jarri, sustatu eta merkaturatzeko eta helmuga turistikoetako enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programa (Lurralde Proiektu Turistikoak). | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen.<br>▪ Aurreko urteko deialdiaren baldintzak eta ezaugarriak mantentzea. |
| **Ekintzailetzari eta enpresak modernizatzeko eta haien lehiakortasuna hobetzeko** laguntza-programa, honako hauek babestera zuzenduta dagoena: negozio eredu berrien sorrera, berrikuntza soluzio teknologikoen ezarpenaren bidez, enpresen eta zerbitzu turistikoen kalitatearen hobekuntza eta eskaintza moldatzea turismo jasangarriagoa, arduratsuagoa eta irisgarriagoa lortzeko. | ▪ Deialdia maiatzean argitaratu zen, negozio turistiko berriak sortzeko ekintzailetza babesteko laguntza-ildo berria barneratuz (3 urte baino gutxiagoko enpresak). Era berean, programaren zenbait ezaugarri aldatu egin dira, hala nola diruz-lagundutako aldia eta zenbait inbertsioen ezaugarriak.<br>▪ Emaitzak aurreikusitako helburuen azpitik egon dira; 71 eskaera atzera bota izan dira araudi erregulatzailea ez betetzeagatik.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, eskarien balorazioan 3 puntu areagotzea baldintza hauetako bat betetzeagatik: Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plana izateagatik, Emakunderen erakunde laguntzailea izateagatik edo lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko Plana izateagatik. |
| Sektoreko **belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko** programa, enpresa eskualdatzeak dakartzan prozesuetarako laguntza eta aholkularitza eskaintzeari esker. | ▪ Berriz Enpresa Programa, 3 Merkataritza Ganberekin eta Merkataritza Zuzendaritzarekin.<br>▪ Programaren jarraitutasuna, urte osoan zehar irekita mantendu dena, eta ebaluazio positiboa jaso duena. |
| **Sektorea profesionalizatzeko** prestakuntza-ekintzak, helmuga turistikoen lehiakortasuna hobetze aldera. | ▪ Prestakuntza honako gai hauetan: kalitate turistikoaren jardunbide egokietan (SICTED) eta kalitate turistikoaren Q ziurtagirian, IKTen erabileran eta berrikuntza teknologikoan, ingurumen-kudeaketarako sistemetan (Europako Ekoetiketa), energia-eraginkortasunean, Ardoaren ezagutzaren Campusean eta irisgarritasunean.<br>▪ Berrikuntza teknologikoko eta "xehetasunaren kulturaren" inguruko lantegien antolaketa. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 175 turismo-enpresaren hobekuntza, modernizazio eta ekintzailetza laguntzea, sektorean enplegua mantentzen laguntzeko | ▪ 91 enpresa turistiko modernizatu dira<br>▪ 1.384 enplegu mantendu dira modernizatutako enpresetan (613 gizon eta 771 emakume)<br>▪ 5 turismo-enpresa berri sortu dira<br>▪ 8 enplegu berri sortu dira turismo-enpresa berrietan | ▪ Aurreikusitako enpresen % 55 |
| Turismo-enpresak eskuz aldatzen laguntzea belaunaldiz aldatzeko eta sektorean ekiteko | ▪ 6 eskualdatutako turismo-enpresa | ▪ Ez da aplikagarria |
| Turismoaren sektoreko profesionalen trebakuntza hobetzen laguntzea, enpresen eta jomugen lehiakortasuna bultzatuko duten prestakuntza bitartez, eta, ondorioz, turismo jasangarri eta arduratsua garatzea bultzatuz. | ▪ 1.418 enpresek prestakuntza jaso dute honako gai hauetan: kalitate turistikoaren jardunbide egokiak (668), kalitate turistikoaren Q ziurtagiria (180), IKT (160), Europako Ekoetiketa (29), Energia-eraginkortasuna (52), Anfitrioiak (44), Berrikuntza Teknologikoa (90), Irisgarritasuna (18) eta Ardoaren ezagutzaren Campusa (277). (Kontutan hartu behar da enpresa batek zenbait prestakuntza-ekintzetan parte hartu dezakeela)<br>▪ 3.337 “Xehetasunaren kultura” delakoan eta berrikuntza teknologian trebatutako pertsona | ▪ Ez da aplikagarria |

## 1.6 JARDUERA-ILDOA - EGOERA OKERREAN DAUDEN ESKUALDE ETA UDALERRIEI LAGUNTZA ESPEZIFIKOA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Indartu programa **eremu behartsuenetan enplegua sortzeko inbertsio produktiboko proiektuak** bultzatzeko, produktuaren eraldaketarako prozesuekin, gaitasunen areagotzearekin eta jarduera berrien garapenarekin lotura duten inbertsioei lehentasuna emanda. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen<br>▪ Jarduerak Nerbioi ibaiaren ezkerraldean (Bizkaia) eta Oiartzualdean (Gipuzkoa), biak baitaude Europako Batzordeak onartutako Eskualde Laguntzen Maparen barne eremu hautagarri gisa, eta EAEko urteko batez besteko langabezia-tasa % 20an gainditzen duten udalerrietan<br>▪ Gutxienez ere 50 enplegu garbi sortzeko betekizuna enpresa handien kasuan eta 15 enplegu ETEen kasuan<br>▪ Programaren irismena handitu da 2017arekin alderatuta, urteko batez besteko langabezia-tasa % 20an gainditzen duten udalerriak barneratu baitira<br>▪ Programaren emaitzak hobeak izan dira 2017arekin alderatuta, eta aurrekontu-kreditua agortu egin da |
| **Toki- eta eskualde-mailan enplegua hobetzeko edota sortzeko proiektu pilotuen** garapena, langabezia gehien dagoen eremuetan, prospektiba lanean aurreikusitako beharrei egokituz eta jarraipen- eta kontrol-neurriak gehituz. | ▪ 2019rako aurreikusitako programa, egoera ahulagoan dauden guneetan Enplegurako Tokiko Ekintzak aurrera eramateko deialdi espezifikoaren diseinuaren bitartez gauzatuko dena |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 10 enpresari enplegua sortzeko inbertsio-proiektuak egoera okerra bizi duten zonaldeetan garatzen laguntzea, 150 enplegu sortzen laguntzeko eta aurretik zituzten lanpostuei eusteko | ▪ 27 lagundutako enpresa<br>▪ 421 enplegu berri laguntza jasotzen duten enpresetan<br>▪ 2.105 laguntza jasotzen duten enpresetan mantendutako enplegu | ▪ Enpresen eta enpleguaren helburua bete eta gainditu da (hirukoitza inguru) |
| Toki- eta eskualde-mailan enplegua hobetzeko edo sortzeko proiektu pilotuak babesteko programa espezifikoaren diseinua eta martxan jartzea, bereziki, langabezi gehien duten eskualde eta udalerrietan. Erakunde eta ekonomia-eragileen parte-hartzea eta adostasuna handia izan da; izan ere, hauen joera da prospektiba-lanean hautemandako aukerak aprobetxatzeko soluzio berriak esperimentatzea, behin ebaluatuak izan direnean, EAE osora estrapolatu daitezkeelarik. | ▪ Toki- eta eskualde-mailan enplegua hobetzeko edo sortzeko proiektu pilotuentzako laguntza-programaren diseinua 2018an: Ez<br>▪ Programaren lehenengo deialdia 2018an argitaratzea: Ez | |

## 2. Jarduera Esparrua

# EKINTZAILETZA SUSTATZEA

## 2.1 JARDUERA-ILDOA - EKINTZAILETZA BERRITZAILEARI ETA BARNE EKINTZAILETZARI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Ekintzaile programa **izaera industrial berritzaileko edo lotutako zerbitzuetarako enpresa-ekimen berriak garatzeko**, barne hartuta ideia zehaztu eta garatzeko laguntza eta aholkularitza, eta proiektua martxan jartzeko finantzaketa lortzea. | ▪ Deialdia zabalik urte osoan zehar, eta lagundutako proiektuen kopurua % 28 hazi da aurreko urtearekin alderatuta.<br>▪ Lankidetza BICekin (Business Innovation Centres) 3 lurraldeetan, ideia ekintzaileak antzeman eta merkaturaino eramateko.<br>▪ Ekintzailetza-ildoak Ekintzailetzarako Erakundeen arteko Planarekin bateratzea. |
| Gauzatu Industria programa oinarri teknologikoa eta berritzailea duten **ETE industrialak sortu eta garatzeko**, enplegua sortzen duen inbertsioa sustatuta. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Enplegu garbia sortzeko konpromisoa onartzea, 24 hilabeteko epean zehar gehienez ere.<br>▪ Ebaluazio positiboa ETEen aldetik, finantza-erakundeen instrumentu osagarria baita. |
| Barnekintzaile programa dagoeneko ongi finkatutako industria-enpresen **barne-ekintzailetzako proiektu** berriak aztertzeko, zehazteko eta martxan jartzeko. | ▪ Deialdia zabalik urte osoan zehar, eta lagundutako proiektuen kopurua % 12 hazi da aurreko urtearekin alderatuta.<br>▪ Programaren ebaluazio positiboa, laugarren deialdian, eragile sustatzaile nagusien aldetik. |
| BIND 4.0 programa 4.0 industriaren eremuan **startup-ak azeleratzekoa**, non startup bakoitzak industria enpresa handi batekin kontratua sinatzea errazten den, mentoring- eta azelerazio-programa pertsonalizatuaz gain. | ▪ Programaren hirugarren deialdia.<br>▪ Emaitza oso positiboak; izan ere, 524 startup aurkeztu dira, aurreko urtean baino % 36 gehiago. 32 startup eta 33 enpresa traktoreren artean 44 proiektu burutzea adostu da; hortaz, aurreikusitako helburuak bete eta gainditu dira. Proiektu horietatik, 32 manufaktura aurreratuaren eremukoak dira, 11 energiaren eremukoak eta 10 osasunaren eremukoak; azken eremu hori aurten barneratu da programan. |
| Ekintzailetza-proiektuak finkatzeko laguntza Basque funtsari esker. Funts honek **arrisku-kapitala/hazi-kapitala bultzatu** nahi du proiektuek garapen- eta finkatze-faseetan zehar dituzten finantzaketa-beharrak asebetetzeko. | ▪ Deialdia zabalik urte osoan zehar.<br>▪ Funtsaren ezaugarriak mantendu dira bi tartetan, proiektuen ibilbide-faseen arabera. |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Oinarri teknologiko berritzaileko 40 enpresa-proiektu berri sortu eta martxan jartzen laguntzea. | ▪ 122 enpresa berritzaile berri (ekintzailetza-proiektuak)<br>▪ 360 enplegu berri enpresa berrietan (estimazioen arabera) | ▪ Planteatutako helburuak ekintzailetzarako proiektuen bitartez sortutako enpresei egiten die erreferentzia. Proiektuen % 70 enpresa bihurtzea espero da; horrela, helburua bete eta gaindituko da. |
| Industriako 50 ETEan oinarri teknologikoko proiektu berritzaileak martxan jartzen laguntzea | ▪ 55 lagundutako ETE (50 lehendik zeudenak eta 5 enpresa berri)<br>▪ 752 enplegu berri proiektu berriei esker<br>▪ 1.685 enplegu mantendu dira laguntza jasotzen duten enpresetan | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 10 gehiago) |
| Barne-ekintzailetzako 50 ekimenen garapena sustatzea | ▪ 47 enpresa parte-hartzaile barne-ekintzailetzako programetan<br>▪ 130 enplegu sortuak | ▪ Aurreikusitako ekimenen % 94 |
| Trakzio-enpresen lankidetzarekin, proiektuetan 25 startup merkaturatzen laguntzea. | ▪ 32 startup parte-hartzaile<br>▪ 33 enpresa bultzatzaile parte-hartzaile<br>▪ 44 lagundutako lankidetza-proiektu | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 28 gehiago) |
| 15 ekintzailetza ekimen sendotzen laguntzea kapital-arriskuaren / kapital-haziaren bitartez eta partaidetza-maileguen bitartez | ▪ 10 lagundutako enpresa<br>▪ 30 enplegu berri/mantendu laguntza jasotzen duten enpresetan | ▪ Aurreikusitako ekimenen % 15 |

## 2.2. JARDUERA-ILDOA - AUTOENPLEGURAKO ETA MIKROEKINTZAILETZARAKO LAGUNTZAK

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Ekintzaileei laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua emateko programa** enpresa-ideia berriak garatzeko, ekimen berriak abian jartzeko eta ekimen horiek behar bezala finkatzeko. | ▪ Deialdia urrian argitaratu zen.<br>▪ Ekintzaileek programa modu positiboan baloratu dute, eta 2017an abian jarritako proiektu berrien ezarpena babesteko lerroa mantendu da.<br>▪ Laguntzen zenbatekoa mantentzea, aurreko urtearekin alderatuta, eta ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa % 15ean areagotuta emakume ekintzaileen kasuan.<br>▪ 225 pertsonari laguntza ematea beren enpresa-ideia garatzeko, 135 pertsonari enpresa-jarduera berriak abian jartzeko, 686 pertsonari enpresa-jarduera sendotzeko eta 111 pertsonari proiektua finkatzeko. |
| Ekintzailetza sustatzeko programa **langabeziatik datorren enplegu autonomoa sortzeko**, langabezia kapitalizatzea errazten duten neurriei esker. | ▪ Laguntzen finantzaketarako baliabide ekonomikoen esleipena martxoan argitaratu zen.<br>▪ 500 pertsona berrik diru-laguntza jasotzen dute, 2018an Gizarte Segurantzari kuotak ordaintzeari esker. Horietatik 156 norbere konturako pertsona autonomoak ziren eta 344 gizarte ekonomiako enpresetako bazkideak. Horrekin batera, aurreko beste urtetako 322 pertsona onuradunek laguntza horiek jasotzen jarraitu dute. |
| **Lankidetza beste eragile batzuekin** ekintzailetza sustatzeko laguntza-ildoen garapenean, barne hartuta ekintzaileei zuzendutako arreta eta aholkularitza, enpresa berriak sortzeko laguntza eta ekintzailetza berrien finkatzea. | ▪ Lankidetza-hitzarmena izenpetzea Enplegurako eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketarako Sailarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarekin, uztailean, DEMA programaren esparruan. DEMA ekintzaileei aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua eskaintzeko, enpresa berrien sorrera sustatzeko eta dauden enpresak sendotzeko programa da.<br>▪ Lankidetza Gaztempresa Fundazioarekin ekintzailetza-ekimen berritzaileei laguntza emateko, langabezian dauden pertsonek enpresa berriak sortzeko eta sortu berri diren enpresen garapena eta finkatzea sustatzeko diseinatutako neurriei esker, batik bat, gazteengan eta gizarteratze-proiektuengan arreta berezia jarrita. |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 300 mikroenpresa eta enpresa txiki berri garatzen eta martxan jartzen laguntzea, euskal administrazioaren baliabideekin edo beste eragileen lankidetzari esker (3.3 ildoan aipaturiko gazteen ekintzailetza barne hartu gabe). | ▪ 644 enpresa berri (135 enpresa Ekintzaileen Laguntza Programaren 30 urteko edo hortik gorako tartean + 205 Dema Programan + 304 Gaztempresa Programaren 35 urteko edo hortiko gorako tartean)<br>▪ 964 enplegu berri (521 gizon eta 443 emakume) (175 enplegu Ekintzaileen Laguntza Programaren 30 urteko edo hortik gorako tartean + 215 Dema Programan + 574 Gaztempresa Programaren 35 urteko edo hortiko gorako tartean) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da. Kontuan hartu behar da emaitza hauek barnean dituztela Gaztempresa programak lagundutako enpresak (35 urteko edo hortik gorako pertsonen tartean); izan ere, pertsona horiek guztiak, hasiera batean, Gazte Ekintzailetza 3.3 Ildoaren helburuetan aurreikusita daude. Gazte Ekintzailetza |
| 600 mikroenpresa eta enpresa txikiren sendotzea erraztea, sortu berri diren enpresen sustapena, funtzionamendua eta kudeaketa bultzatuz | ▪ 686 enpresa berri finkatu<br>▪ 686 enplegu mantendu dira finkatutako enpresetan (387 gizon eta 299 emakume)<br>▪ 111 enpresa berrik laguntza jasotzen dute ezarpena lortzeko<br>▪ 111 enplegu mantendu dira ezarpena lortzeko laguntza jasotzen duten enpresetan (56 gizon eta 55 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 32 gehiago). Kontutan hartu behar da helburuaren hasierako estimazioan ez zela aintzakotzat hartu proiektua finkatzeko laguntzen bidezko sendotzearen laguntza-ildoa. |
| 500 langabetu lan-munduan barneratzea erraztea, horretarako ekintzailetza-proiektuak garatzeko langabeziaren kapitalizazioa laguntzen. | ▪ 500 lagundutako langabe (156 norbere konturako pertsona autonomo eta 344 bazkide)<br>▪ 156 enpresa berri<br>▪ 344 langabetu kooperatiba eta lan-elkarteetan kide gisa gehitu dira | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 100 |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Ekintzailetza arloan lankidetza-kanalak hobetzea beste instituzio eta erakundeekin. Halaber, ekintzailetzarako laguntza-zerbitzuen onuradunen ekintzailetza-ibilbideari buruzko informazioa biltzeko sistema bat ezartzea | ▪ Laneratzerako Zerbitzuen eta Enplegua Sustatzeko Zerbitzuen proposamenak<br>▪ Ekintzailetza-ibilbidea izanik laguntza jaso duten pertsonen kopurua 2019tik kuantifikatuko dira | ▪ Ez da aplikagarria |
| Ekintzaileei Laguntzeko programaren ezaugarri eta barne-prozedurak berrikustea, programaren eraginkortasuna hobetzeko xedez | ▪ Programaren oinarri arautzaileen berrikusketa: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Sortu zirenetik gutxienez hiru urteetan ekintzailetza laguntzeko programak laguntza jaso duten enpresa berrien mantentze edo biziraupenaren jarraipena egiteko dinamika ezartzea | ▪ Lagundutako enpresa berrien biziraupen edo mantentzearen jarraipena: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |

### 3. Jarduera Esparrua

# GAZTEEN ENPLEGUAREN SUSTAPENA

## 3.1. JARDUERA-ILDOA - HEZKUNTZATIK LANERA IGAROTZEA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Hezkuntzatik lanera igarotzeko programa espezifikoa, **3 hilabeteko lehen esperientzia praktikoa** eskaintzeko helburua duena eta **unibertsitate-graduko ikasleei zuzendua** dagoena. Programaren helburuak dira enplegu kualifikatu bat burutzeko behar diren ezaguerak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotzea eta ekoizpen-sektore bakoitzeko enpresen behar espezifikoei erantzutea. | ▪ 2017an Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateen artean ezarritako esparru-akordioa mantentzea.<br>▪ Programa bigarren urtez egon da martxan, ebaluazio positiboa jaso du, eta aurreikusitako helburuak bete eta gainditu ditu.<br>▪ Protokolo bat jarri da abian, programan parte hartu duten unibertsitate-ikasle gazteek lan-munduan izan duten txertaketaren jarraipen espezifikoa burutzeko helburuarekin.<br>▪ Enpresen sentsibilizazioa areagotzea gazteei lehen lan-esperientzia bat eskaintzeko egin dezaketenaren inguruan. |
| **Hezkuntzatik lanera igarotzeko programa espezifikoa lanbide heziketaren esparruan**, Lan-zentroko Prestakuntza modulua egin eta oraindik titulurik ez duten ikasleei lehenengo lan-esperientzia eskaintzera zuzenduta dagoena. | ▪ 2017an, Eusko Jaurlaritzaren, Ikaslan Lanbide Heziketako Zentro Publikoen Elkartearen eta Hetel Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Zentro Pribatuen Elkartearen artean ezarritako esparru-akordioa aldatzea, horrek diru-laguntzen kudeaketan sortu dituen zailtasunak direla eta.<br>▪ Bere ordez, ekainean, laguntzetarako agindu berria argitaratu zen, zeinaren bidez enpresetan egiten den egonaldia luzatzeko diru-laguntzak eskaintzen diren. Laguntza hauek Lan-zentroko Prestakuntza modulua egin eta oraindik titulurik ez duten lanbide heziketako ikasleei zuzenduta daude.<br>▪ Curriculum kanpoko praktiken luzapena enpresetan 3 hilabeteko aldirako; lanbide heziketako 1.895 ikaslek parte hartu dute (991 gizon eta 904 emakume). |
| **Lankidetza eragile** espezializatuekin unibertsitateko edo lanbide-heziketako azken ikasturtean dauden edo ikasketak duela gutxi amaitu dituzten gazteei lan-orientazioa eta aholkularitza eskaintzeko. | ▪ Lankidetza-hitzarmena izenpetzea Deustuko Unibertsitatearekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin, laguntza jaso duten pertsonen % 10 lan-munduan txertatzeko helburua barne hartuta.<br>▪ Lankidetza-hitzarmena izenpetzea Novia Salcedo Fundazioarekin. Hitzarmen honi esker laguntza eta aholkularitza emango zaizkie gazteei prozedura berritzaileen bitartez (coaching teknikak, gaitasun teknikoen eta zeharkako gaitasunen inguruko prestakuntza, enpresekin lankidetzan aritzeko sareen garapena, etab.) . Hitzarmenak barne du laguntza jaso duten 50 pertsona lan-munduan txertatzeko helburua.<br>▪ Osotara, 1.580 pertsonari eman zaie laguntza (624 gizon eta 956 emakume) eta programak ebaluazio positiboa jaso du |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Hezkuntza mundutik lan mundura igarotzeko esperientzia praktikoa erraztea unibertsitateko eta lanbide heziketako azken ikasturteetako 1.250 gazteri. | ▪ 978 unibertsitate-ikaslek eta lanbide heziketa ikaslek parte hartu dute programan (365 gizon eta 613 emakume)<br>▪ 298 kontratu edo praktiken luzapena, sei hilabete edo gehiagokoak, enpresan egon eta gero sinatuak (unibertsitateko ikasleak) | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 78 |
| Arautkutako hezkuntzaren ondoren gazteen lan munduan sartzearen jarraipen-sistemak eta azterketak sendotzea | ▪ Unibertsitate eremuko % 53 gaztek ikasketak amaitu eta 6 hilabetetara lan-kontratua lortu dute, unibertsitate-prestakuntza amaitzen duten gazteen kopuru osoarekin alderatuta. | ▪ Ez da aplikagarria |
| Hezkuntza-mundutik lan-mundura iragateko programaren ezaugarri eta barne-prozedurak berrikustea, bere lan-modua errazteko eta enpresentzat erakargarriago izan dadin | ▪ 2017ko esparru-akordioa lanbide heziketaren arloko agindu berri batengatik aldatzea<br>▪ Akordioa eta programaren ezaugarriak mantentzea unibertsitatearen esparruan | ▪ Ez da aplikagarria |

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| 30 urtetik beherako gazteei **lehen lan-aukera** eskaintzeko xedea duen programa, **beren titulazioarekin lotura duten enpleguetarako enpresek eskainitako kontratazioren** bitartez. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen eta ebazpena azaroan, 305 kontraturi laguntza emanda, horietatik 49 kontratu mugagabeak izanda (% 16).<br>▪ Deialdiaren berrikuspena argitaratu aurretik, arreta berezia jarri da ezaugarrietan eta programaren ebazpen prozeduretan. Helburua programa enpresentzat erakargarriagoa egitea da, hautagaiak hautatzeko formulak eta kontratuak egiteko momentua hobetuz. Hobekuntza horiek 2018ko deialdian barneratu dira. Ildo beretik, unibertsitateko titulazio guztiak talde bakar batean bildu dira; beraz, banaketa lan-merkatuan gaur egun dauden titulazioen araberako lan-eskaintzen errealitatera moldatu da.<br>▪ Bestalde, iraupen luzeagoko kontratuentzako laguntzen zenbatekoa areagotu da, ahalik eta kontratu gehien formalizatzeko eta egonkortasun handiagoa lortzeko helburuarekin.<br>▪ Programaren aurreko deialdian parte hartu zuten gazteen laneratzearen jarraipenerako sistemarekin jarraitzea, programa horrek gazte hauen enplegagarritasuna areagotzeko lortu duena aztertzeko xedearekin.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartzea, laguntzen zenbatekoa % 10ean areagotuta emakume gutxi dituzten lanbideetan emakumeekin gauzatutako kontratuen kasuan. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 600 gazteri lanean hasteko lehenengo aukera erraztea enpresek haiek ikasitakoarekin lotutako enpleguetan kontratatzea erraztuz. | ▪ 309 gazte kontratatu programaren bitartez (217 gizon eta 92 emakume)<br>▪ 243 enpresa laguntzen onuradun | ▪ Aurreikusitako gazteen % 51 |
| Programaren ezaugarri eta barne-prozedurak berrikustea, bere lan-modua errazteko eta enpresentzat erakargarriago izan dadin | ▪ Programaren oinarri arautzaileen berrikusketa: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Programan parte hartzen duten gazteen laneratzearen jarraipenerako dinamika ezartzea neurri honen laguntza gazteen enplegagarritasuna areagotzean aztertzeko xedez | ▪ Programan parte hartzen duten gazteen laneratzearen jarraipena: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |

## 3.3. JARDUERA-ILDOA - GAZTE EKINTZAILETZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Ekintzailetza Beken** programa, unibertsitateen eta lanbide-heziketaren alorretan ekintzailetzaren kultura sustatzeko helburua duena, enpresa-lantegien garapenari eta enpresa berrien sustapenari esker, aholkularitza eskainita, ideien garapenerako laguntza emanda eta azpiegiturak eskura jarrita. | ▪ 2017an Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistemako Unibertsitateen artean ezarritako esparru-akordioa mantentzea.<br>▪ Programa bigarren urtez egon da abian unibertsitate eremuan, eta balorazio positiboa jaso du. Bereziki erakargarria da enpresa-ideia bat garatu nahi dutenentzat. Enpresa-sarearen sorrera bultzatzeko azpiegiturak eskura jarri dira. Hori, beste programa batzuekin elkarlanean, gehien baloratzen den aspektuetako bat izaten jarraitzen du.<br>▪ Eusko Jaurlaritzaren, Ikaslan Lanbide Heziketako Zentro Publikoen Elkartearen eta Hetel Gizarte Ekimeneko Lanbide Heziketako Zentro Pribatuen Elkartearen artean ezarritako esparru-akordioa aldatzea. Bere ordez, erdi- eta goi-mailako zikloetako bigarren ikasturteko ikasleen artean ekintzailetzaren kultura sustatzeko laguntza deialdi berria argitaratu da, zentro publiko zein pribatuetako ikasgeletan enpresa simulazio proiektuak garatuz. |
| **Urrats Bat programa ekintzailetza espezifikoki sustatzeko** lanbide heziketako ikasleen artean. | ▪ Koordinazioa Tknika bitartez.<br>▪ 60 lanbide-heziketako zentrok parte hartu dute, 12.000 ikasle baino gehiago sentsibilizatu dira eta 200 enpresa-proiekturen prestakuntza-tutoretza burutu da garapen-fasean.<br>▪ Mikro-ETEen garapena sustatzea, batezbesteko 20.000 €-ko hasierako inbertsioarekin, urteko batezbesteko 50.000 €-ko fakturazioarekin eta enpresa bakoitzeko 1,8 batezbesteko langilerekin. |
| **Ekintzaile gazteei laguntza eta aholkularitza pertsonalizatua emateko programa** enpresa-ideia berriak garatzeko, ekimen berriak abian jartzeko eta ekimen horiek behar bezala finkatzeko. | ▪ Deialdia urrian argitaratu zen.<br>▪ Laguntzen zenbatekoa mantentzea aurreko urteko deialdiarekiko, zenbatekoaren % 15eko areagotzearekin 30 urtetik beherakoen kasuan eta % 15eko areagotzearekin emakume ekintzaileen kasuan.<br>▪ 132 gazteri laguntza ematea beren enpresa-ideia garatzeko, 70 gazteri enpresa-jarduera berriak abian jartzeko eta 160 gazteri enpresa-jarduera sendotzeko. |
| **Lankidetza beste eragile batzuekin** ekintzailetza gaztea sustatzeko laguntza-ildoen garapenean, barne hartuta ekintzaileei zuzendutako arreta eta aholkularitza, enpresa berriak sortzeko laguntza eta ekintzailetza berrien finkatzea. | ▪ Lankidetza Gaztempresa Fundazioarekin ekintzailetza-ekimen berritzaileei laguntza emateko, langabezian dauden pertsonek enpresa berriak sortzeko eta enpresa-garapena eta -finkatzea sustatzeko diseinatutako neurriei esker batik bat, gazteengan eta gizarteratze-proiektuengan arreta berezia jarrita. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gazteen ekintzailetza sustatzea lanbide heziketako eremuan, eta 75 enpresa sortzen laguntzea. | ▪ 98 enpresa berri lanbide-heziketaren alorrean (Urrats Bat Programa)<br>▪ 154 enplegu berri ekintzailetza berriei esker lanbide-heziketaren alorrean (Urrats Bat Programa) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 30 gehiago) |
| Lan-munduan ekintzailetzako esperientzia praktikoa erraztea unibertsitate-hezkuntza edota lanbide-heziketako azkeneko urteko 150 ikasleentzat, edota aurreko kurtsoan titulua jaso duten ikasleentzat, unibertsitate eta lanbide-heziketarako zentroekin lankidetza-hitzarmenen bidez | ▪ 143 unibertsitate-ikaslek parte hartu dute enpresak sortzeko egon daitezkeen proiektuetan (90 gizon eta 53 emakume)<br>▪ 70 enpresa-proiektu unibertsitate-hezkuntzako eremuan<br>▪ Lanbide heziketako 313 ikaslek parte hartu dute enpresak sortzeko egon daitezkeen proiektuetan<br>▪ 75 enpresa-proiektu lanbide heziketako eremuan | ▪ Helburuak ekintzailetza proiektuei egiten die erreferentzia (diru-laguntzen kopurua), unibertsitate eremuan % 93an betetzat jotzen delarik.<br>▪ Lanbide heziketaren eremuan, helburua betetzat jotzen da. Hala ere, kontutan hartu behar da aurreko orrialdean aipatutako aldaketa programan. |
| Gazteen 425 enpresa berri garatu eta martxan jartzea euskal administrazioak eskainitako zerbitzuen baliabideei (Lanbide, SPRI,…) eta beste erakunde eta agente espezializatuekin hitzartutako baliabideei esker | ▪ Gazteek sortutako 201 enpresa berri (70 Ekintzaileen Laguntza Programaren bitartez, 30 urtetik beherako tartean + 131 Gaztempresa Programaren bitartez, 35 urtetik beherako tartean)<br>▪ 336 enplegu berri ekintzailetza gazteei esker (90 Ekintzaileen Laguntza Programaren bitartez + 246 Gaztempresa Programaren bitartez); (185 gizon eta 150 emakume) | Aurreikusitako gazteek sortutako enpresa berrien % 47. Kontuan hartu behar da emaitza hauek barne dituztela Gaztempresa programak 35 urtetik beherako tartean lagundutako enpresak (35 urteko edo hortik gorako pertsonen tartea 2.2 Autoenplegua eta Ekintzailetza Sustatzeko 2.2 Ildoan kontuan hartu baita). |



## 3.4. JARDUERA-ILDOA - TOKIKO ZEIN ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK GAZTEENTZAT

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Gazte langabeen kontratazioa bultzatzea Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen bidez**, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna hobetzen duten eta tokiko enpresen aldetiko langabeen kontratazioa ahalbidetzen duten enplegu-sustapen jardunei sostengua emanda. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Programaren ezaugarriak mantentzea aurreko urtearekin alderatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartzea, kontratatutako pertsonen % 40 gutxienez emakumeak izan daitezen ezarrita. |
| **Tokiko erakundeek gazteak kontratatzea** sustatzea, 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, enplegua lortzea erraztuko duen esperientzia profesionalaren bitartez. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Tokiko erakundeek 8 edo 12 hilabeteko lanaldi osoko kontratuak egin dituzte, udalerrian onura publikoko edo interes sozialeko jarduerak garatzeko.<br>▪ Tokiko 37 erakundek jaso dituzte laguntzak 258 kontratu egin ahal izateko.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barneratu dira hautespen prozesuan; beraz, hautagaien artean, gutxienez, emakume bat egon behar da. Baldintza hau betetzen ez denean, espresuki justifikatu beharko da. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bitartez kontratatutako pertsonen % 30 edo gehiago 35 urtetik beherakoak izatea. | ▪ 830 gazte kontratatu dira Tokiko Enplegu Planei esker (behin behineko datua)<br>▪ % 36 gazte kontratatu dira, Tokiko Enplegu Planei esker kontratatutako pertsona guztiekin alderatuta (behin behineko datua) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (6 puntu gehiago) |
| Tokiko erakundeek pertsona gazteak kontratatzea sustatzea, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan, enplegua lortzea erraztuko duten esperientzia profesionalaren bitartez | ▪ 258 gazte kontratatu dituzte tokiko erakundeek, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan (behin behineko datuak) (helburu espezifikoa gehitu) | ▪ Helburu hau ez zegoen espresuki kuantifikatuta 2018ko Ekintza Planaren definizioan. Arrazoi hori dela eta, bere betetze-mailaren balorazioa 2019tik aurrera barneratuko da. |

## 3.5. JARDUERA-ILDOA - TXANDA-BERRITZE PROGRAMAK

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Pertsona gazteak barne hartzen dituzten txanda-kontratuak** sustatzeko programa, hartara enpresako langileak gaztetzea ahalbidetuta. | ▪ Deialdia abenduan argitaratu zen.<br>▪ Programaren ezaugarriak mantentzea aurreko urteko deialdiarekin alderatuta.<br>▪ 70 eskaera jaso dira, eta 47 eman dira.<br>▪ Programaren ezaugarriak eta prozedurak berrikustea beharrezkoa zela ikusi zen, azken urteotan lortutako emaitza eskasen ondorioz. Hausnarketa- eta berrikuspen-prozedura bati ekin zitzaion 2017. urtean, hainbat gizarte-eragilerekin batera. Prozedura 2018an zehar luzatu da, inkesten eta enpresekin egindako elkarrizketa zuzenen bidez. Ildo beretik, Hiru Alderdiko Elkarrizketarako Mahaiak deialdia berrikustea proposatu du. Berrikuspena 2019an amaitzea espero da. |
| **2018ko Lan Eskaintza Publikoa** onartzea Euskal Administrazio Publiko osorako, osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren eta administrazio orokorraren arloetan, gazteen lan-mundurako sarrera bultzatuta. | ▪ Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 18an onartu zuen 2019rako Lan Eskaintza Publikoa, guztira 4.402 enplegu zituena (4.362 txanda libreko enplegu eta 40 barne-igoerakoak).<br>▪ Lanpostuak 2019 eta 2020an zehar beteko dira. Estimazioen arabera, osasunaren, hezkuntzaren eta administrazio orokorraren arloetako lanpostuen % 40 gazteek beteko dituzte. Segurtasunaren kasuan, lanpostu guztiak 25 urtetik beherakoentzat dira.<br>▪ Ekintza positiboko neurriak barne hartzea, berdinketa hausteko emakumeen aldeko irizpidea ezarrita emakumeek % 40tik beherako ordezkaritza-portzentajea duten kidego edo eskalen kasuan. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 100 gazteren kontratazioa sustatzea sektore pribatuko txanda-kontratuen edo kontratu gehigarrien bitartez | ▪ 45 gazte kontratatu dira txanda-kontratuen bitartez (34 gizon eta 11 emakume)<br>▪ 2 gazte kontratatu dira kontratu gehigarrien bitartez (gizon 1 eta emakume 1) | ▪ Aurreikusitako txanda-kontratuen % 47 |
| Txanda-kontratuen edo kontratu gehigarrien bitarteko kontratazio programaren helburu eta eskakizunak berrikustea enpresentzat erakargarriago izan dadin | ▪ Programaren oinarri arautzaileen berrikusketa: Bai | |
| Euskal herri administrazioan erretiratu direnen lanpostuak betetzeko 1.548 gazteri lanean barneratzen laguntzea (2018an LEPera deitutako 3.270 lanpostuen guztizkotik) | ▪ 2.045 gazte lan-munduan txertatu dira euskal administrazio publikoko Lan Eskaintza Publikoei esker | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 32 gehiago). 2018rako Lan Eskaintza Publikoa hasieran aurreikusi zena baino lanpostu gehiagorekin onetsi da. |

## 3.6. JARDUERA-ILDOA - GAZTEEN ITZULERARI LAGUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Itzuli nahi duten gazteak Euskadiko lan-mundura sartzea errazteko helburua duen **gazteen itzulerarako** programa, gutxienez ere azken 12 hilabeteetan EAEtik kanpo bizi izan diren gazteei zuzendua. | ▪ Deialdiaren argitalpena aldez aurretiko izapidetzean; enpresek eskaerak aurkezteko aukera izan dute 2018ko urtarriletik irailera.<br>▪ Programaren deialdia bigarren urtez egin da. Emaitzak helburuaren nahiko azpitik egon dira, enpresek eta itzuli nahi duten pertsonek ez dutelako programa ezagutzen, ez baitu ikusgarritasun nahikorik. Honen erakusle izan dira, beste batzuen artean, lan-eskaintza kopuru eskasa, hautagai egokiak ez egoteagatik hutsik geratu diren eskaintzak eta deialdiaren berri itzuli eta gero izan duten gazteak, hauek ezin izan baitute programan parte hartu.<br>▪ Itzuli nahi duten gazteak fitxategi espezifiko batean erregistratu behar zirela ikusi zen eta kontratuaren iraunaldian zehar EAEan profesionalki jardun eta bizitzeko konpromisoa onartu beharra ezarri zen. 100 pertsona inguruk eman dute izena Itzultzeko Fitxategian 2018an. Bertan, hautagaien karakterizazio globala egiten da, honako faktore hauek kontutan hartuz: bizi diren herrialdea edo Autonomi Erkidegoa, hizkuntzen ezagutza eta haiekin bat datozen eremu profesionalak.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak sartzea, laguntzen zenbatekoa % 10ean areagotuta emakumeekin gauzatutako kontratuen kasuan.<br>▪ 2019ko deialdian aldaketak egiteko asmoa dago. Aldaketa horien artean dago programan parte hartzeko denbora-baldintza luzatzea; horrela, duela 3 hilabete baino gutxiago itzuli diren pertsonei programan parte hartzeko aukera luzatuko litzaieke baita ere.<br>▪ Bestalde, instituzio eta erakundeekin lankidetza-ildo berriak garatzea aurreikusten da, enpresen eta itzuli nahi duten pertsonen artean programa aditzera emateko. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 2018ko lehenengo seihilekoan zehar, itzultzea pentsatzen ari diren pertsonen karakterizazio kuantitatibo eta kualitatiboa egitea eta haien beharrak eta espero dutena zehaztea | ▪ Karakterizaziorik al dago? BAI | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gazteak itzultzeko diseinatutako laguntza zerbitzuen bitartez 50 gazteri itzultzen laguntzea | ▪ 6 pertsona itzuli dira gazteen itzulerarako zerbitzuei esker (5 gizon eta emakume 1) | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 12 |
| Gazteen itzulera laguntzeko beste tresnak gehitzeko aukera aztertzea (itzuli nahi duten inskribatutako pertsonen behar eta itxaropenen arabera), besteak beste, enplegu eta autoenpleguari eta enpresa-ekimen berriak sortzeko lotutako zerbitzuak | ▪ Gazteen itzulera laguntzeko beste tresnak gehitzea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Beste instituzio edota erakundeekin lankidetzarako dinamika hastea ekintzak koordinatzeko. Ekintza hauek euskal erakundeek dituzten talentu beharrei erantzuna aurkitzea ahalbidetuko dute, zati garrantzitsuan itzulitako talentu gaztearen eskutik | ▪ Bai, enpresa-entitateek programari buruzko informazioa jarri dute haien enpresako webgunean | ▪ Ez da aplikagarria |
| Atzerrian dauden profesional gazteen itzulera sustatzea, EAEn kokatutako euskal enpresetan sar daitezen erraztuz, euskal administrazioaren beste tresna batzuen bitartez. | ▪ Ez da egon Landhome programaren onuradunik. Eskaera bat aurkeztu zen, baina ez zuen aurrera egin | ▪ Ez da aplikagarria |

## 3.7. JARDUERA-ILDOA - TALENTU GAZTEA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Beint eta Global Training, **atzerrirako beken** esperientzia-programak, atzerriko enpresa eta erakundeetan prestakuntza teorikoa eta praktikak uztartzen dituztenak, unibertsitate-tituludunei eta lanbide-heziketako graduatuei zuzenduak. | ▪ Beint programaren deialdia aurreko urteko abenduan argitaratu zen eta Global Training programarena 2018ko ekainean.<br>▪ Aurreko urteko deialdien ezaugarriak mantentzea. Hala ere, etorkizunean egingo diren deialdietarako programak berrikustea aurreikusten da.<br>▪ Beint programaren bekadunen kopurua murriztu egin da. Desbideratze horren arrazoiak aztertu ahal izateko ikerketa abiarazi da. |
| Gazte langabeen **kontratazioa** sustatzeko programa **atzerrian kokatutako euskal enpresen lan-zentroetan**, titulazioarekin harremana duten enpleguetan esperientzia profesionala eta kualifikazioa lortzeko helburuarekin. | ▪ Deialdia aurreko urteko irailean argitaratu zen, aldez aurretiko izapidetzean.<br>▪ Emaitzak aurreikusitakoak baino baxuagoak izan dira, eta eskariak etengabe jaitsi dira 2016tik. Programarekin batera, antzeko ekintzak burutzen dituzten eta kontratazioriк behar ez duten beste deialdi publiko batzuk daudelako gertatzen da hori.<br>▪ Ez da 2019rako deialdirik planifikatu. |
| **Nekazaritza eta arrantza eta elikaduraren sektoreetako ingurune zientifiko-teknologikoan eta enpresa-ingurunean** prestakuntza eskaintzeko programa espezifikoa, ikertzaile eta teknologoei zuzendutako beken bitartez. | ▪ Deialdia aurreko urteko urrian argitaratu zen.<br>▪ Aurreko urteko deialdiaren ezaugarriak mantentzea, doktorego-tesiak burutzea eta ikerketa-proiektuak eta garapen teknologikoko eta berrikuntzako proiektuak garatzea sustatuta, 2 eta 4 urte bitarteko beken bitartez.<br>▪ Halaber, prestakuntza-ekintza espezifikoak garatu dira arrantzaren eremuan, arrantza-ontzietan prestakuntza praktikoa barneratzen dutenak (Itsasoratu programa), eta 23 parte-hartzaile izan dituztenak. |
| **Hezkuntzaren arloan kualifikazioa hobetzeko** programa, nazioarteko unibertsitate-mugikortasun bekei (Erasmus bekak) eta ikerketa-lanei ekiteko bekei (Ikasiker bekak) esker. | ▪ Erasmus beka-programaren garapena 2018-2019 ikasturte akademikorako.<br>▪ Ikasiker beka-programaren garapena 2018-2019 ikasturte akademikorako, honako erakundeekin lankidetzan: Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeak, Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC), Osasun Ikerketako Institutuak (OII) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ). |
| Gazteentzako esperientzia-programak zenbait **arlo espezifikoetan**, hala nola kanpo harremanetan, garapenerako lankidetzan eta ikerketan. | ▪ 41 gaztek izan dute esperientzia praktikoa, kanpo harremanetan eta garapenerako lankidetzaren arloan espezializatutako diru-laguntzen bitartez.<br>▪ ZTBE sarearen eragileetan eta enpresetan ikertzaileak kontratatzeko babeserako Berrikertu programaren garapena, non 79 gaztek parte hartu duten, eta ikertzaileak laneratu eta industria doktoregoak egiteko laguntzeko Bikaintek programa, non 58 gaztek parte hartu duten. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 535 gaztek atzerriko esperientzia-programetan parte hartzen laguntzea | ▪ 74 parte-hartzaile Beint programan (45 gizon eta 29 emakume)<br>▪ 400 parte-hartzaile Global Training programan (185 gizon eta 215 emakume)<br>▪ 2 parte-hartzaile atzerriko euskal enpresen lan-zentroen kontratazio-programan (2 gizon) | ▪ Aurreikusitako parte-hartzaileen % 89 |
| 20 gazteren enplegagarritasuna hobetzea, sektore zehatzetan ikerketa-proiektuetan parte hartuz (gazte ikertzaile eta teknologoentzako diru-laguntzak) | ▪ 19 parte-hartzaile Ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko programetan (6 gizon eta 13 emakume) | ▪ Aurreikusitako gazteen % 95 |
| Hezkuntza arloan, 1.575 gazteren prestakuntza hobetzea nazioarteko mugikortasun programetan edo ikerketa proiektuetan parte hartzearen bitartez. | ▪ 1.918 parte-hartzaile nazioarteko unibertsitate-mugikortasun programetan Erasmus bekarekin (790 gizon eta 1.129 emakume)<br>▪ 119 parte-hartzaile unibertsitateen alorreko ikerketa-proiektuetan Ikasiker bekarekin (61 gizon eta 58 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 29 gehiago) |
| Atzerrian esperientziarako programetan eta ikerketa proiektuetan parte hartuko duten gazte parte-hartzaileen lan-munduan barneratzearen jarraipena sistematizatzea | ▪ Aldizka txostenak egin eta argitaratzea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Atzerrian finkatutako euskal enpresen lankidetza areagotzea gazteei atzerriko esperientzia-programatan harrera emateko | ▪ 74 euskal enpresek parte hartu dute internazionalizaziorako diru-laguntzen BEINT programan, laguntzaile gisa | ▪ Ez da aplikagarria. Helburuaren betetze-maila 2019tik aurrera aztertuko da, 2018ko emaitzak oinarritzat hartuta. |

## 3.8. JARDUERA-ILDOA - PRESTAKUNTZA DUALA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Lanbide heziketaren alorreko prestakuntza** dualaren eredua sustatzea, eredu dualeko zikloen eta eskainitako espezialitateen irismena zabalduta eta prestakuntza-zentroen parte-hartzea bultzatuta. | ▪ Eredu dualean irakasle espezifikoak izateko neurriak.<br>▪ Enpresei zuzendutako aholkularitza eta laguntza prestakuntza-eredu dualean parte har dezaten sustatuta.<br>▪ Prestakuntza-eredu dualeko parte-hartzearen goranzko bilakaera 2018-2019 ikasturtean zehar, 97 zentro, 1.434 enpresa eta 2.295 ikasle barne hartuta. |
| Unibertsitateen alorrean eredu duala ezartzeko aurrerapausoak, **prestakuntza dualeko unibertsitate-tituluen ziurtapen-sistema** bat diseinatzeari esker. Sistema Unibasq – Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziarekin lankidetzan garatu da. | ▪ Unibertsitateko 24 titulaziok jaso dute aipamen duala Graduan eta Graduondokoan.<br>▪ Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Ministerioarekin harremanak ezarri dira prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua moldatzeko, unibertsitate-prestakuntza dualaren esparruan.<br>▪ Goi-mailako lanbide heziketako titulazioen eta Graduko unibertsitate-titulazioen artean kredituak amortizatu dira. |
| Unibertsitateen eta enpresen alorren arteko harremana sustatzeko jarduera osagarrien garapena, **Unibertsitate-Enpresa Estrategiaren** abiarazte eta diseinuaren esparruan. | ▪ Unibertsitateen Euskal Kontseiluaren Lan-taldea Unibertsitate-Enpresa esparruan sendotzea eta Euskadiko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako unibertsitate heziketarako 4Gune Klusterraren sendotzea.<br>▪ Lehenengo Unibertsitate-Enpresa gelaren sorrera AICn (Automotive Intelligence Center) eta ikasleak enpresetara mugitzeko programa espezifikoaren diseinua, Unibertsitate-Enpresa aipamena duten titulazioei lotuta dagoena.<br>▪ Unibertsitate-enpresa maparen garapenean aurreratu da.<br>▪ Unibertsitate-enpresako ikasleen mugikortasun programa diseinatu da |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Lanbide Heziketako ikasleen laneko esperientzia ziurtatzen joatea, hemendik 2020-2021 ikasturtera lanbide heziketako ikasleen % 50k programa horien bitartez euren esperientzia ziurtatu ahal izan dezaten, eta lanbide heziketa dualari lehentasuna emateko | ▪ 2.295 ikasle lanbide-heziketa dualean<br>▪ Lanbide heziketan eredu duala ikasten duten gazteen % 20<br>▪ Lanbide heziketako 30 erdi-mailako ziklo, 55 goi-mailako ziklo eta 7 oinarrizko ziklo eredu dualean<br>▪ Sare publiko edo hitzartutako zentroetan eskaintzen diren zikloen % 67 eredu dualean | ▪ Aurreikusitako ikasleen % 40 |
| Eredu duala unibertsitateko heziketara barneratzen joatea, eta 2019-2020 ikasturtean unibertsitateko 20 gradu eta masterretan gutxienez 600 ikasle har daitezen | ▪ 468 unibertsitate-ikasle daude euskal unibertsitateen sarean aipamen dualean graduak edo masterrak ikasten<br>▪ Euskal unibertsitateen sarean aipamen dualean graduak edo masterrak ikasten ari diren gazteen urteko % 0,9 (unibertsitateko gradu eta masterren totalarekiko)<br>▪ 24 Euskal unibertsitateen sareko zentroetan aipamen duala jaso duten gradu eta master<br>▪ Euskal unibertsitateen sareko zentroetan aipamen duala jaso duten graduen eta masterren urteko % 9 (unibertsitateko gradu eta masterren totalarekiko) | ▪ Aurreikusitako ikasleen % 78<br>▪ Helburua bete eta gainditu da aipamen dualeko graduen eta masterren kasuan (% 20 gehiago) |

## 3.9. JARDUERA-ILDOA - GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Gazteei zuzendutako **prestakuntza-ekintza orokorren** garapena enplegurako prestakuntzaren esparruan. | ▪ 2018-2020 aldirako enplegurako prestakuntzaren deialdia uztailean argitaratu zen (ikus Langabetuen prestakuntzarako 4.1 jarduera-ildoa).<br>▪ Kualifikazio baxua duten langabetu gazteen gizarteratzea eta laneratzea aktibatzera zuzendutako prestakuntza-ekintzen programa espezifikoa argitaratu da urrian. Programa berria da, eta bere helburua hau da: oinarrizko gaitasun sozio-pertsonaletan eta tekniko-profesionaletan prestakuntza ibilbideak sortzea, horiei esker kualifikazio baxua duten gazteen gizarteratzea eta laneratzea eta haien garapen pertsonala erraztuko baita; eta baita 2. mailako ziurtagirietarako sarbidea ere.<br>▪ Ekintza positiboko neurriak hartu dira, eta emakumeak prestakuntzan parte hartzeko lehentasunezko taldetzat hartzen dira. Helburua da emakumeek langabetuen guztizkoan duten proportzio berean parte hartzea. |
| Langabezia dauden gazteei zuzendutako prestakuntza-proiektuen garapena, **prestakuntza- eta kontratazio-ekintzak** uztartuta. | ▪ Behin kontratatzen direnean enpresetan gauzatuko dituzten prozesuetan eta lanetan modu espezifikoan prestatuko diren pertsonak barneratu behar dituzten enpresetara moldatutako prestakuntza-ekintza espezifikoak.<br>▪ Gutxienez ere 6 hilabeteko iraunaldia duten kontratazio-modalitateei eta prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuei zuzendutako sostengua. |
| **Hezibi txandakako lanbide-heziketako** programa, lanbide-heziketako ikasleei eta beren gaitasunak hobetu nahi dituzten langabeei zuzendua. Programak profesionaltasun-ziurtagiria edo txandakako lanbide-heziketako titulua lortzeko aukera ematen du. enpresetan burututako ordaindutako lan-jarduera ere burutzeari esker. | ▪ Deialdia apirilean argitaratu zen.<br>▪ Txandakako lanbide-heziketako prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak garatzeko laguntza. Kontratuak, orokorrean, urte betekoak eta lanaldi osokoak izan dira. |
| **Prestakuntza-ekintza**k garatzea beste eragile batzuekin **elkarlanean**, gazteen gizarteratzea eta laneratzea errazteko. | ▪ Novia Salcedo Fundazioarekin lankidetza, tituludun gazteen laneratzera zuzendutako ekintza berritzaileak aurrera eramateko. Arreta berezia jartzen da genero-berdintasunean eta Enpresen Erantzukizunaren garapenean. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 5.000 gazte trebatzen laguntzea enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz (4.1 eta 4.2 jarduera-ildoetan bildutako ekintzetan parte hartuko duten gazteen artean zenbatuta) | ▪ 5.410 gazte trebatu dira enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez (estimazioen arabera, 3.625 gizon eta 1.785 emakume)<br>▪ 218 gaztek parte hartu dute kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan (estimazioen arabera, 116 gizon eta 102 emakume)<br>▪ 1.006 parte-hartzaile gazte Hezibi programan (estimazioen arabera, 775 gizon eta 231 emakume)<br>▪ 321 gaztek parte hartu dute Novia Salcedo Fundazioaren laneratzea hobetzeko ekintza berritzailetan (estimazioen arabera, 138 gizon eta 183 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 39 gehiago). Kontutan hartu behar da hasieran zehaztutako helburua ez zuela barneratzen kualifikazio baxuko gazteentzako programa espezifikoa, ez eta Novia Salcedo Fundazioaren prestakuntza-ekintzak ere. |

## 4. Jarduera Esparrua

# ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

## 4.1. JARDUERA-ILDOA - LANGABETUEN PRESTAKUNTZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Prestakuntza-ekintzen garapena, Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan, nagusiki langabeen birziklatzea sustatzeko pentsatuak, lan-merkatuan eskatzen diren kualifikazioekin eta gaitasunekin bat etorrita. | ▪ 2018-2020 aldian prestakuntza-ekintzak garatzeko laguntzen deialdia uztailean argitaratu zen, Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan.<br>▪ Prestakuntza-ekintzen programazioa aldatu egin da, eta aurrerantzean bi urtekoak izango dira. Honela, prestakuntza-erakundeak prestakuntza-jarduerak 2018ko azaroan egiten hasi dira (deialdiaren ebazpenaren data), eta programazioarekin jarraitu dute 2020ko lehenengo seihilekora arte. Planifikazio horren ondorioz, 2018an trebatu diren pertsonen kopurua murriztu egin da, baina 2019an kopurua berriro hasiko da eta orekatuko da.<br>▪ Hezkuntza Sailarekin kudeaketa-gomendio akordioa sinatzea, dagozkien prestakuntza-programazioak burutze aldera. |
| Enplegurako prestakuntzarako **ekintza berritzaileak** garatzea, sektore espezifikoetako prestakuntza proiektuen bitartez; osagarri tekniko eta teknologiko altua duten profil profesionalen esparruan, enpresen behar jakinei erantzuteko zuzenduak daudenak. | ▪ Prestakuntza proiektua automobilgintzaren sektorean, bikaintasunerako heziketa zentro baten garapen eta ezarpenaren esparruan. Zentro honen helburua automobilgintzaren industrian dagoen behar orokorrari erantzutea litzateke; hau da, konplexutasun tekniko eta teknologiko altuko gaitasun eta konpetentzia profesionalak dituzten kualifikatutako eta espezializatutako profesionalak trebatzea. |
| Enplegurako ekintzen eta **orientazio**-zerbitzuen garapena, prestakuntza laneratze-ibilbide integralen diseinu-prozesuan barne hartuta. | ▪ 2017ko uztailean enplegurako ekintzak eta orientazio-zerbitzuak garatzeko deialdia argitaratu zen, eta 2018an ebatzi ziren.<br>▪ 48.176 pertsonari eman zaie arreta (23.777 emakume eta 24.399 gizon) orientazio orokorreko erakunde laguntzaileen, Enplegu-zentroen eta Lanbideren bulego mugikorren bitartez. Emaitza hauek partzialak besterik ez dira, jarduera-aldia 2019ko martxora arte luzatzen delako, bai orientazio orokorreko ekintzetarako zein Enplegu-zentroetarako. Bestalde, Lanbideren bulego mugikorrek haien jarduera urrira arte garatu zuten. Data honetan zerbitzua amaitu egin zen berritzeko aurreikuspenik gabe.<br>▪ Prestakuntza-ekintzen programazioan aldaketa, aurrerantzean bi urteroko deialdiak izango direlarik (2019-2021). Deialdien kudeaketa-prozeduran aldaketak, 3 jarduera-ildo dituen deialdi bakarra diseinatuz: Lanbideren erabiltzaile direnei zuzendutako orientazio orokorreko ekintzak eta zerbitzuak; desabantaila duten taldeen parte diren pertsonei zuzendutako orientazio ekintzak eta zerbitzuak; eta Enplegu-zentroetako jarduerari laguntza. |
| Langabetuen laneratzea babesteko neurri gisa **enplegurako anezkak** abian jartzea, haien zeharkako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak hobetzeari esker. | ▪ Araban enplegurako 4 anezka abian jartzea, Arabako foru Aldundiarekin elkarlanean.<br>▪ 80 langabetu inguruk parte hartu dute. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Langabezian dauden 22.000 pertsona gaitzea eta prestakuntza jasotzea erraztea lan-merkatuko beharrei egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bitartez | ▪ 11.474 langabe parte-hartzaile enplegurako prestakuntza-ekintzetan (estimazioen arabera, % 54 gizonak eta % 46 emakumeak) | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 52. Datu hau behin behinekoa da; izan ere, orientazio-zerbitzuen jarduera-aldia 2019ko martxoa arte da. |
| 2.000 langabeturen enplegagarritasuna hobetzea prestakuntza eta enpleguko berrikuntzarako ekintza berritzaileen bitartez | ▪ 2.765 langabe parte-hartzaile enplegurako prestakuntza eta enpleguaren alorreko ekintza berritzaile integraletan (estimazioen arabera, % 67 gizonak eta % 33 emakumeak) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 38 gehiago) |
| Prestakuntzarekin lotutako enplegurako orientazio- eta laguntza-zerbitzua eskaintzea | ▪ 48.176 pertsonari eman zaie arreta, orientaziorako erakunde laguntzaileen, Enplegu-zentroen eta Lanbideren bulego mugikorren bitartez (24.399 gizon eta 23.777 emakume) | ▪ Ez da aplikagarria |

## 4.2. JARDUERA-ILDOA - PRESTAKUNTZA KONTRATATZEKO KONPROMISOAREKIN

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Enpresek **prestakuntza-ekintza espezifikoak** garatzea, gutxienez ere parte-hartzaileen erdia **kontratatzeko konpromisoarekin.** | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ 50 prestakuntza-ekintza espezifiko garatu ziren kualifikazio berezia behar duten lanpostuetako profilen behar zehatzak asebetetzeko, lanbide horiek modu eraginkorrean enpresetan sartzeko.<br>▪ Gutxienez ere parte-hartzaileen % 50aren kontratazio-konpromisoa 6 hilabeteko gutxieneko iraunaldiarekin, lanaldia osoa bada, eta iraunaldi baliokidearekin lanaldia partziala bada.<br>▪ Emakumeak lehentasunezko kolektibotzat jotzea ekintzetarako, emakumeek langabetuen guztizkoan duten proportzio berean parte hartzeko helburuarekin. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 1.250 langabeturen enplegagarritasuna hobetzea prestakuntza-ekintzen bidez enpresek ondoren kontratatzeko-konpromisoarekin | ▪ 671 kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan (estimazioen arabera, % 44 gizonak eta % 56 emakumeak)<br>▪ 456 pertsona kontratatu dira (estimazioen arabera) | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 54 |

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
| --- | --- |
| **Prestakuntza-plan eta -ekintza sektorialen** (zeharkako gaitasunak) **eta/edo intersektorialen** (gaitasun espezifikoak) **garapena**, lanean ari diren pertsonen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera eta lan- eta ekoizpen-esparruan sortzen diren aldaketetara moldatzera zuzenduta daudenak. | ▪ 2018-2020 aldian lanean ari diren pertsonei zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzeko laguntzen deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Prestakuntza-ekintzen programazioa aldatu egin da, aurrerantzean bi urtekoak izango dira. Honela, prestakuntza-erakundeak prestakuntza-jarduerak 2018ko azaroan egiten hasi dira (deialdiaren ebazpenaren data), eta programazioarekin jarraitu dute 2020ko lehenengo seihilekora arte.<br>▪ Hezkuntza Sailarekin kudeaketa-gomendio akordioa sinatzea, dagozkien prestakuntza-programazioak burutze aldera.<br>▪ Prestakuntza-planak eta -ekintzak Hobetuz (Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa) erakundearekin lankidetzan garatu dira. |
| Lan-esperientziari esker edo bestelako prestakuntza ez formalen bitartez lortutako gaitasun profesionalen ziurtapena sustatzea, **gaitasunak ebaluatu eta ziurtatzeko prozedura** dela medio. | ▪ 22 profesionaltasun-ziurtagirirekin eta lanbide-heziketako titulurekin lotutako 1.540 lanpostu betetzera bideratutako 2017-2018 deialdia argitaratu zen urrian.<br>▪ Argitaratutako gaitasunen ebaluazio eta ziurtapeneko prozedurak hauek izan dira, besteak beste: gizarte-erakundeetan mendeko pertsonei arreta soziosanitarioa ematea (300 toki); etxeko arreta soziosanitarioa (300 toki) eta osasun larrialdiak (50 toki). |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 40.000 langileren enplegagarritasuna hobetzea enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartzea sustatuz (urtean zehar parte hartuko duten langile guztien batura hartuko da kontuan) | ▪ 43.017 langile parte-hartzaile enplegurako prestakuntza-ekintzetan (estimazioen arabera, % 47 gizonak eta % 53 emakumeak) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 8 gehiago) |
| 3.000 pertsonak lan esperientziarekin edo arautuko heziketa-bideak ez direnen bitartez jasotako gaitasunak ziurtatzen laguntzea | ▪ 1.454 pertsonaren gaitasunak ziurtatu dira gaitasun profesionalen ebaluaziorako eta ziurtapenerako prozeduraren bitartez. | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 48 |

5. Jarduera Esparrua

# LANERATZEKO PIZGARRIAK

## 5.1. JARDUERA-ILDOA - TOKIKO ZEIN ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Enplegagarritasuna hobetzea eta langabeen kontratazioa sustatzea **Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen** bitartez. Ekintza hauek barne dute enplegua sustatzeko tokiko erakundeen aldetiko jarduerak garatzea, tokiko enpresen aldetiko kontrataziorako pizgarriak ezartzea eta tokiko enpresa-proiektu estrategikoen garapena. | ▪ Deialdia ekainean argitaratu zen.<br>▪ Lan-munduan txertatzeko zailtasun bereziak zituzten 1.397 pertsonaren enplegagarritasuna hobetu duten enplegua sustatzeko jardueren garapena, 3 eta 6 hilabete bitarteko iraunaldiko kontratuei esker.<br>▪ 891 langaberen kontratazioa tokiko enpresen aldetik, gutxienez ere 3 hilabeteko iraunaldiko kontratu bidez.<br>▪ Eskatutako ezaugarriak betetzen zituzten oinarri teknologikoko tokiko enpresa pribatuen edota berritzaileen enpresa-proiektu berriak edo hazkuntza-proiektuak finantzatzeko eskaririk ez da jaso.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartzea, kontratatutako pertsonen % 40 gutxienez emakumeak izan daitezen ezarrita. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Urtean lanik gabe dauden 2.500 pertsona lan-munduan txertatzea sustatzea Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bitartez | ▪ 2.288 pertsona kontratatu Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planei esker (estimazioen arabera, % 44 gizonak eta % 56 emakumeak) | ▪ Aurreikusitako pertsonen % 91 |
| Enplegurako Tokiko eta Eskualdeko Planen ondorioz lortutako inpaktuaren ebaluazioa egitea | ▪ Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen urteko ebaluazioak egitea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Lan-merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboen (iraupen luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoei lehentasuna emanda) laneratzea lortzeko **aholkularitza- eta laguntza-jardun integralen** garapena. | ▪ Luzaroan langabezian egon diren 45 urte baino gehiagoko pertsonak laneratzeko laguntza-jarduera espezifikoak, arreta integralaren bidez. Arreta hori enplegua bilatzeari ekiten zaionean hasten da, eta lanpostu espezifikoei buruzko aholkularitza eta enpresetan egiten diren praktikak barne hartzen ditu.<br>▪ Ekintzen hasiera apirilean, urte beteko indarraldiarekin. |
| Enplegagarritasuna hobetzeko proiektu konbinatuen garapena, **prestakuntzarako eta lan-aktibaziorako jarduera integralak** barne dituztenak, lan-merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten pertsonei zuzenduak (**proiektu bereziak**). | ▪ Programaren bigarren deialdia 2017ko abenduan argitaratu zen.<br>▪ Prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, laneratze-laguntza, orientazioa, laguntza pertsonalizatua eta enplegagarritasuna eta laneratzea hobetzeko bestelako neurriak uztartzen dituzten proiektuei babesa. |
| 35 urtetik gorako langabetuak **atzerrian kokatutako euskal enpresen lan-zentroetan kontratatzeko** laguntza-programa, haien laneratzea eta lan-aukerak hobetze aldera. | ▪ Deialdia aurreko urteko irailean argitaratu zen, aldez aurretiko izapidetzean.<br>▪ Emaitzak aurreikusitakoak baino baxuagoak izan dira (2 onuradun 2018an), eta eskariak etengabe jaitsi dira 2014tik. Arrazoi nagusiak hautagai egokiak aurkitzeko zailtasunekin eta atzerrira joateko hautagaien gogo faltarekin erlazionatuta egon litezke. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Epe luzeko 550 langabetu lan-merkatuan txertatzen laguntzea lan-munduan txertatzeko laguntzarako ekintza bateratuen bidez. | ▪ 1.036 gazte parte-hartzaile laneratzeko laguntza-jardun integraletan (481 gizon eta 555 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (bikoitza inguru) |
| Laguntzako ekintza bateratuetan parte hartzen duten baztertutako, bazterketa arriskuan edo ahultasun egoeran dauden pertsonen % 10 lan-merkatuan txertatzea laguntza-prozesuen ondoren | ▪ % 12 Laguntza- eta aktibazio-jardueretan parte hartzen duten eta DSBEa jasotzen duten, laguntza-prozesuak eta gero, lan-merkatura sartzen diren pertsonen ehunekoa | ▪ Bazterketa egoeran dauden pertsonen portzentajea ezarritako gutxieneko helburuaren gainetik (% 20 gehiago) |

## 5.3. JARDUERA-ILDOA - GIZARTETIK BAZTERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN TREBATZEA ETA BARNERATZEA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Enplegu Zentro Berezien** jarduerei laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonak lanpostu batera sartzeko, bertan mantentzeko eta aurrera egiteko prozesua ahalbidetzen duten heinean. | ▪ Desgaitasuna duten pertsonen Enplegu Zentro Berezietako lanpostua mantentzea eta jarduera profesionalerako laguntza-unitateei dagokien deialdia martxoan argitaratu zen; jarduera profesionalerako laguntza unitateei dagokiena 2017ko abenduan argitaratu zen.<br>▪ 75 Enplegu Zentro Bereziren jarduerei laguntza, 9.772 lanpostu bete direlarik (3.408 emakume eta 6.364 gizon), 510 profesionalek osaturiko (profil teknikoko 185 eta laguntza-arduradun profileko 325) Enplegu Zentro Berezien jarduerei laguntza emateko 35 unitateri laguntza. |
| **Laneratze Enpresen** jarduera sustatzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonen laneratzea ahalbidetzeko, laguntzan oinarritutako gizarteratze-laneratze prozesu bati esker. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ 35 Laneratze Enpresen jarduera mantentzeko eta 644 pertsonek (336 gizonek eta 308 emakumek) betetzen dituzten 622 laneratze lanpostu mantentzeko laguntza, zehazki, hauek lagunduz: txertaketa-prozesuetan dauden pertsonei zuzendutako lanpostuak sortu eta mantentzeko jarduerak, ekoizpenerako laguntza-teknikariak, txertaketarako laguntzan adituak diren teknikariak, laguntza teknikoa eta prestakuntza.<br>▪ Deialdiak, halaber, laneratze-enpresen sorrera aurreikusten du, 2018an zehar honelako laguntzarik eman ez bada ere, baliabideen arrazionalizazioa dela eta. |
| Desgaitasuna eta lan-merkatu arruntera sartzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen laneratzea lortzeko lan egiten duten erakundeetan integratutako **lagundutako enplegurako** unitateen sustapena. | ▪ Deialdia 2017ko abenduan argitaratu zen.<br>▪ 79 pertsonaren laneratzeari laguntza (43 gizon eta 36 emakume), lagundutako enpleguaren metodologiari esker. Horren bidez, desgaitasuna duten pertsonek lanerako prestatzaileak dituzte, zeinek merkatu arruntean enplegurako sarrera eta sendotzea ahalbidetzen dieten.<br>▪ Programaren ezaugarriak mantentzea aurreko urtearekin alderatuta.<br>▪ Ekintza positiboko irizpideak barne hartu dira, laguntzen zenbatekoaren % 10eko areagotzea ezarrita kontratatutako desgaitasuna duen pertsona emakumea den kasuetarako. |
| Desgaitasuna duten pertsonen laneratzea, gizarteratzea eta integrazio pertsonala sustatzea, **enpresa arrunten aldetiko kontratazio mugagarrirako** pizgarriak eskainita eta lanpostuak pertsona hauen ezaugarri fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea erraztuta. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ Desgaitasuna duten 150 pertsonari kontratu mugagabeak egiteko laguntza (292 gizon eta 58 emakume).<br>▪ Programaren ezaugarriak mantentzea aurreko urtearekin alderatuta. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Ezintasunen bat duten edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen trebatzea hobetzea Enpleguko Zentro Berezien eta Lanean Txertatzeko Enpresen jarduerei laguntza eskainiz, eta haietan 9.500 lanpostu mantenduz | ▪ 10.394 lanpostu Enplegu Zentro Berezien eta Laneratze Enpresen jardueretan, 10.416 pertsonek betetzen dituztenak (6.700 gizon eta 3.716 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 9 gehiago) |
| Ezintasunen bat duten 200 pertsona lan-mundu arruntean txertatzea erraztea | ▪ Desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden 229 pertsona kontratatu merkatu arrunteko enpresetan (135 gizon eta 94 emakume) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 14 gehiago) |

## 5.4. JARDUERA-ILDOA - LAN-BIZITZA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZAK

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko** programa, enpresei laguntza zuzena eskainita bateragarritasun-neurriak (eszedentziak edo jardunaldiaren murrizketa) eskatzen dituzten pertsonak ordezkatzeko langileak kontrata ditzaten. | ▪ Deialdia martxoan argitaratu zen.<br>▪ 539 enpresari eman zaie laguntza, bai eszedentzia edo jardunaldiaren murrizketa eskatu duten pertsonen ordezkoak kontratatzeko, eta baita aurretik lanaldi partziala zuten langileen lanaldia zabaltzeko ere. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko enpresen laguntzarekin 1.400 pertsona kontratatzea sustatzea (urtean zehar parte hartuko duten pertsonen batura kontuan hartuta) | ▪ 2.019 pertsona kontratatu bateragarritasunerako laguntzei esker (359 gizon eta 1.660 emakume)<br>▪ 539 enpresa bateragarritasunerako laguntzen onuradun | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 44 gehiago) |

## 6. Jarduera Esparrua

# RENOVE BIRGAITZE PROGRAMAK

## 6.1. JARDUERA-ILDOA - RENOVE ETXEBIZITZA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko** programa, bizigarritasuna, segurtasuna, irisgarritasun-baldintzak hobetu eta energia-kontsumoa murrizteko helburuarekin. | ▪ Partikularrek eta jabeen erkidegoek abiarazitako etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko diru-laguntzen deialdia argitaratua, zeinaren bidez 2.452 erkidegori dagozkien 10.445 etxebizitzetan eta 500 lokaletan egindako lanak babesten diren, 17.907.332 €-ko diru-laguntzekin, babes daitekeen aurrekontua 424.237.152 €-koa izanik.<br>▪ Ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egiteko etxebizitzak eta eraikinak modu eraginkorrean birgaitzeko diru-laguntzen deialdia argitaratua, zeinaren bidez 20 erkidegori dagozkien 730 etxebizitzetan egindako lanak babesten diren, 6.175.000€-ko diru-laguntzekin, babes daitekeen aurrekontua 14.064.729€-koa izanik. |
| **Hiri ingurunean eta gune publikoetan irisgarritasuna hobetzeko** birgaitze-ekintzei eta hirigintzaren zein gizartearen arloetan arazo bereziak dituzten eremuetako ondare eta eraikinak birgaitze-ekintzei laguntza emateko programa. | ▪ Udaletxeei, tokiko erakunde txikiei eta onura publikoko erakunde pribatuei zuzendutako laguntzen deialdiaren argitalpena, irisgarritasun planak egiteko edo eguneratzeko eta eraikinen hiri inguruneen irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza lanak egiteko.<br>▪ 95 udaletxeri eta tokiko erakunde txikiri laguntza, gune publikoetako irisgarritasuna hobetzeko 142 jarduera egiteko eta hondatutako edo gizarte-arazoen eraginpeko eremuetako 24 birgaitze-proiektu aurrera eramateko, diru-laguntzak 6.400.000 €-koak izan dira eta babes daitekeen aurrekontua 10.874.325 €-koa. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Etxebizitza eta eraikinen birgaitze-lanen sustapenaren bitartez birgaitzearen azpisektorean 3.500 enplegu sortzen edo sendotzen laguntzea | ▪ 449.176.206 € etxebizitzen birgaitze babesturako (30.482.332 € inbertsio publikotik eratorritakoak + 418.693.874 € inbertsio pribatutik eratorritakoak)<br>▪ 3.337 lanpostu berri birgaitze-lanen ondorioz (lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz) | ▪ Aurreikusitako lanpostuen % 95 |
| Eraikuntzako sektorean jarduten duten 1.000 enpresa-establezimendu sortzen laguntzea, jardueraren areagotzearen eta birgaitzearen azpisektoreko enpleguaren areagotzearen funtsezko emaitza dira | ▪ 2.874 enpresa-establezimendu berri (Enpresa-demografia. Eustat) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (hirukoitza inguru) |
| Birgaitze-lanen balio ekonomikoa bizilekuen eraikuntzaren azpisektoreko lanen % 30era iristea lortzea | ▪ Birgaitze-obren lizentzia-kopuruaren portzentajea etxebizitzetako obren osotarako lizentzia-kopuruarekin alderatuta: % 83,45 | ▪ Adierazlea eskuragarri dagoen informazioaren arabera kalkulatu da berriro (hasiera batean "birgaitze-obren fakturazioaren portzentajea etxebizitza-eraikuntzaren azpisektoreko obra guztiekin alderatuta" gisa definitu zen, baina informazio hau lortzea zaila da) |
| Birgaikuntza jasangarria bultzatzea horretarako 20 etxebizitzatan proiektu pilotu bat garatuz; proiektu horren helburua da talde behartsuek etxebizitza errazago lor dezatela, birgaikuntza ekintzen bidez ("hiri-apartzeria") | ▪ Proiektu pilotua 2019an hasiko dela aurreikusten da | ▪ Ez da aplikagarria |

## 6.2. JARDUERA-ILDOA - RENOVE AZPIEGITURAK

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Euskal **hezkuntza-zentro publikoen hobekuntzarako** programa, azpiegituren egokitzapen edo birgaitzearen alorrean antzemandako beharrak eta/edo eskolatze-arrazoiak direla eta handitze-beharrak asebetetzeko birgaitze-obrak burutzea sustatuta. | ▪ Birgaitze- eta hobekuntza-obren garapena 44 heziketa-zentrotan. Horrek aurreikusitako obren % 80 2018an zehar izapidetu edo exekutatu direla esan nahi du.<br>▪ Obren helburuak, nagusiki, hauek izan dira: oztopo arkitektonikoak kentzea, espazio eta instalazio jakinak (arkupeak, teilatuak, jantokiak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak, etab.) handitzea, suteen aurkako araudira egokitzea eta eraikin berriak eraikitzea. |
| **Euskal osasun-zentro publikoen hobekuntzarako** programa, birgaitze-jarduerak eta zentroen birgaitze-jarduerak sustatuta, antzemandako beharren arabera. | ▪ Birgaitze- eta hobekuntza-obren garapena 4 osasun-zentrotan: Urdulizko Ospitaleko kirurgia-blokea eta kirurgiako ospitaleratze-solairua; Txagorritxu Ospitaleko instalazioak handitzea; eta Basurtuko Ospitaleko hemodinamikako eta unitate koronarioko instalazio berriak<br>▪ Osakidetzaren sareko zentroen azpiegituren hobekuntza orokorra, erradiodiagnostikorako tresnak, kardiologiako teknologia aurreratuak eta onkologiaren arloko tratamenduak berritzeari esker. |
| **Industrialdeak, enpresa parkeak eta ekonomia-jarduerako eremuak hobetzeko** laguntza-programa, zeinari esker, instalazioak hautemandako beharren arabera moldatzen eta birgaitzen diren. | ▪ 2018ko programa berria, industrialdeak, enpresa parkeak eta ekonomia-jarduerako guneak eguneratzeko eta berritzekoa, arlo hauetako jardueren eta obren bidez: energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak, eta eremu pribatuak eta publikoak birurbanizatzea, berritzea, birgaitzea eta hobetzea.<br>▪ 101 eskaera jaso dira, zeinetatik 64 proiektu onartu diren; industrialdetan, enpresa parketan eta ekonomia-jarduerako guneetan azpiegiturak eguneratzeko eta berritzekoak. |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpleguaren sorrera edota sendotzea piztea birgaitzearen azpisektorean herri ikastetxeetako zaharberritze-lanen bitartez | ▪ 39.921.736 € hezkuntza-zentroak birgaitzeko<br>▪ 318 lanpostu berri hezkuntza-zentroetako birgaitze-lanen ondorioz (lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpleguaren sorrera edota sendotzea piztea birgaitzearen azpisektorean herri osasun zentroetako birgaitze-lanen bitartez | ▪ 9.450.000 € osasun zentroak birgaitzeko (finantzazio publikoa eta pribatua barne)<br>▪ 74 lanpostu berri osasun-zentro publikoetako birgaitze-lanen ondorioz (lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpleguaren sorrera edota sendotzea piztea birgaitzearen azpisektorean, industrialde, enpresa-parke eta jarduera ekonomikoko eremuetarako birgaitze-lanen bitartez | ▪ 3.100.000 € industrialdeak birgaitzeko<br>▪ 25 lanpostu berri osasun-zentro publikoetako birgaitze-lanen ondorioz (lanaldi osoko urteko enplegu baliokideen sorreraren estimazio bitartez kalkulatuta, Eusko Jaurlaritzaren pizgarriekin egin diren birgaitze-jardueren ondorioz) | ▪ Ez da aplikagarria |

## 7. Jarduera Esparrua

# ENPLEGU PUBLIKOA

## 7.1. JARDUERA-ILDOA - ENPLEGU PUBLIKOA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **2018ko Lan Eskaintza Publikoa** onartzea Euskal Administrazio Publiko osorako, osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren eta administrazio orokorraren arloetan. | ▪ Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 18an onartu zuen 2018rako Lan Eskaintza Publikoa, guztira 4.402 lanpostu zituena (4.362 txanda libreko lanpostu eta 40 barne-igoerakoak).<br>▪ Lanpostuak 2019 eta 2020an zehar beteko dira: 2.408 lanpostu hezkuntzaren arloan, 1.083 osasunaren arloan, 500 segurtasunaren arloan eta 337 administrazio orokorraren arloan. Lan-eskaintza publiko honek Uraren Euskal Agentziarako 65 lanpostu eta EiTBrako 9 lanpostu hartzen ditu barnean.<br>▪ Ekintza positiboko neurriak barne hartzea, berdinketa hausteko emakumeen aldeko irizpidea ezarrita emakumeek % 40tik beherako ordezkaritza-portzentajea duten kidego edo eskalen kasuan. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 3.270 pertsonen lan-munduan txertatzea sustatzea, euskal herri administrazioan erretiroa hartu dutenen lanpostuak betetzeko eta bertako aldi baterako lanpostuak egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoko deialdiaren bitartez | ▪ 4.402 lanposturako deialdia Lan Eskaintza Publikoan (4.362 txanda libreko lanpostu eta 40 barne-igoerakoak) | ▪ Aurreikusitako helburua bete eta gainditu da (% 35 gehiago) 2018rako Lan Eskaintza Publikoa hasieran aurreikusi zena baino lanpostu gehiagorekin onetsi da. |
| Zerbitzu publikoaren beharren eskaeraren azterketarako ikerketaren garapenarekin jarraitzea | ▪ 1. fasea den “eskaeraren azterketa” amaitu da, eta 2. fasea den “demografiaren ikerketa” martxan jarri da. | ▪ Ez da aplikagarria |

## 8. Jarduera Esparrua

# ENPLEGUAREN KALITATEAREN HOBEKUNTZA

## 8.1 JARDUERA-ILDOA - GIZARTEAREN ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEA SUSTATZEA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Eusko Jaurlaritzako eta parte hartzeko gogoa adierazi duten sindikatu eta enpresa-erakunde nagusienetako hainbat ordezkarik osatutako **Gizarte Eztabaidarako Organo Iraunkorraren** sorreran aurrera egitea. | ▪ Irailean bilera bat egin zen, Eusko Jaurlaritzaren eta enpresako eta sindikatuetako eragileen parte hartzearekin. Bertan, akordio bat lortu zen, hiru alderdiko elkarrizketa berriro bideratzeko eta gizarte-adostasuna Gizarte Eztabaidako Mahaiaren baitan sendotzeko.<br>▪ Euskadiko Gizarte Elkarrizketarako Mahaia sortzeko dekretua egiteko aurrerapausoak, Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilean onartuko duela aurreikusten da. |
| **Sailen arteko koordinazioa** lan-harremanekin zerikusia duten sailen eta departamentuen arteko parte-hartze instituzionalean. | ▪ Koordinazioa Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura Sailarekin 4.0 industriarekin lotutako gaien eta 4.0 industriak langileentzat dakartzan ondorioen inguruan.<br>▪ Koordinazioa Enplegu eta Gizarte Politiken Sailarekin lan eta familiaren bateragarritasunaren alorrean, Gizarte Eztabaidako Mahaiak IV. Haurtzaroaren eta Familiaren aldeko Planean izan zuen parte hartzeari esker, eta Lanbideren erreforma eta modernizazioaren alorrean.<br>▪ Emakunderekin elkarlana, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari Euskadiko Soldata-arraila murrizteko Ekintza Plan Operatiboan eta Estrategian aurreikusitako neurrien elaborazioaren eta ondorengo exekuzioaren berri emateko.<br>▪ Hezkuntza Sailarekin elkarlana Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren lanetan barneratzeko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen, Euskal Herriko Lanbide heziketakoa, garapenarekin lotutako neurriak. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gizarte Eztabaidako Mahaian erreferentzia gisa sendotzea, euskal enplegu politika bultzatzeko beharrezkoa den adostasuna lortzeko | ▪ Ez da egon Gizarte Eztabaidako Mahiaren bilerarik | ▪ Ez da aplikagarria |

## 8.2 JARDUERA-ILDOA - GIZARTE ETA ENPRESA ERANTZUKIZUNAREN SUSTAPENA ETA LANGILEAK ENPRESAK PARTE HARTZEAREN SUSTAPENA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Enpresen gizarte-erantzukizuna** Eusko Jaurlaritzako Sailen baitan eta modu egituratuan integratzea sustatzea. | ▪ Enpresaren gizarte erantzukizunaren esparruan, Sailen baitan solaskideen identifikazioan aurrerapausoak.<br>▪ Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plana diseinatzen ari da. |
| **Enpresen gizarte-erantzukizuna enpresen artean** ezagutzera ematea eta erantzukizun hori neurtu eta hobetzeko neurriak ezartzeko laguntza ematea. | ▪ Gizarte erantzukizuna enpresetan barneratzeko eta horren hedapenari laguntzeko programaren diseinua eta lehenengo deialdiaren argitalpena urrian.<br>▪ Enpresei laguntza 3 jarduera-ildori esker:<br>– Enpresen gizarte erantzukizunaren prestakuntza-metodologiak prestatzea.<br>– Enpresetan enpresen gizarte erantzukizuna ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) jasangarritasun-txostenak idazteari esker.<br>– Enpresaren gizarte erantzukizuna enpresetan barneratzearen kuantifikatutako onuren analisia eta enpresaren gizarte erantzukizunaren kulturaren hedapena, jarduera egokien identifikazioaren bidez. |
| **Langileek** enpresetako kudeaketan eta kapitalean **parte hartzea** sustatzea. | ▪ Pertsonek enpresetan era eraginkorrean parte hartzeko programa baten diseinua, erabaki-organoetako zein gizarte-kapitalaren finantza-arloko parte-hartzea sustatuz (akzioen harpidetza, parte-hartze finantzariorako instrumentuak, etab.).<br>▪ Lehenengo deialdia urrian argitaratu da eta 2 jarduera-ildo izan ditu:<br>– Gizarte Ekonomiako Enpresen organoetan eta kudeaketan langileen parte hartzea hobetuko eta erraztuko dituzten metodoak eta tresnak garatzea eta ezartzea.<br>– Langileen parte hartzea sustatzeko ikerketak egitea eta gai horiei buruzko jardunbide egokien hedapena. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpresen gizarte erantzukizuna modu egituratuan agintaritza publikoan barneratzea Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plan berria diseinatuz eta 2018an Gobernu Kontseiluan onetsiz | ▪ Enpresen Gizarte Erantzukizuneko Plana onestea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpresen gizarte erantzukizunaren sustapenaren koordinazioa errazteko Foru Aldundiekin eta tokiko erakundeekin, enpresen gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko forua sortzea | ▪ Enpresaren gizarte erantzukizuneko euskal erakunde arteko eztabaidagunea edo forua sortzea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Euskal enpresen gizarte erantzukizuna neurtu eta hobetzeko metodoak barneratzen laguntzea (bikaintasun ereduak) | ▪ 4 enpresek laguntza jaso dute enpresaren gizarte erantzukizunean bikaintasun ereduak barneratzeko<br>▪ 200 enplegu enpresaren gizarte erantzukizunean bikaintasun ereduak barneratzeko laguntzak jaso dituzten enpresetan (estimazioen arabera) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Langileen enpresetako kudeaketan eta kapitalean parte hartzea sustatzea; kudeaketa organoetan parte hartzeko tresnak eskainiz eta enpresetan sozietateko partaidetza eskuratzea babestuz | ▪ 12 enpresek laguntza jaso dute langileen kudeaketan eta enpresen erabaki-organoetan parte hartzea ahalbidetzeko metodoak eta tresnak ezartzeko | ▪ Ez da aplikagarria |

## 8.3 JARDUERA-ILDOA - GIZARTE EKONOMIAREN ALDE

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza** sustatzea maila eta hezkuntza-alor guztietan eta gizarte-ekonomiako enpresetan beren ordezkaritza-erakundeen bidez burututako prestakuntza- eta zabalkunde-jarduerei esker. | ▪ Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza sustatzeko programaren deialdia irailean argitaratu zen.<br>▪ Prestakuntza-ekintza espezifikoen garapena kooperatibismoaren eta lan-sozietateen inguruko ezaguera abian jarri, hobetu edo kualifikatzeko, unibertsitateen eta/edo sozietateen alorrean.<br>▪ Gizarte-ekonomiako enpresa bat diseinatu eta abian jartzeko ekintzen garapena unibertsitate-prestakuntzaren elementu gisa.<br>▪ Zabalkunde-jarduerak kooperatiben eta lan-sozietateen inguruko aldizkako argitalpenei eta antolatutako jardunaldiei esker. |
| Gizarte-ekonomiaren printzipioen eta balioen inguruko **sentsibilizazioa** gizarte osoari zuzendutako zabalkunde-ekintzen bitartez. | ▪ Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza sustatzeko programaren deialdiaren argitalpena irailean, non hedapenari laguntzeko ildo espezifikoa barneratzen den.<br>▪ Zabalkunde-jarduerak kooperatiben eta lan-sozietateen inguruko aldizkako argitalpenei esker; antolatutako jardunaldiei eta espezializatutako ekitaldiei esker; eta hedabideen bidez egindako zabalkunde-jarduera orokorrei esker. |
| Gizarte ekonomian **elkarteak sortzea** sustatzeko programa, gizarte ekonomiako enpresen elkarte-erakundeak sendotuta. | ▪ Deialdia uztailean argitaratu zen.<br>▪ Lan-sozietate eta kooperatibei, izaera konfederaleko elkarte-erakundeei, ekonomia solidarioko elkarte-erakundeei, enplegu zentro berezietako elkarteei eta antzekoei laguntza ematen dien ingurune baten sorrera sustatzea. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Unibertsitateko eta unibertsitate aurreko hezkuntza-sarean gizarte ekonomiaren inguruko heziketa areagotzea. | ▪ 500 unibertsitateko eta unibertsitate aurreko ikasle parte-hartzaile gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntza-ekintzetan (250 gizon eta 250 emakume) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gizarte ekonomiako heziketa areagotzea gizarte ekonomiako enpresetan, haien elkarteko erakundeen bitartez | ▪ Prestakuntza jaso duten gizarte-ekonomiako enpresetako 500 langile | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gizarte ekonomiaren presentzia indartzea euskal gizarte ekonomiaren ezaugarriak dituzten erakundeen sarean, komunikabideetan eta eztabaidaguneetan | ▪ Gizarte-ekonomia ezagutzera emateko 24 jardunaldi | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gizarte orokorrari gizarte ekonomiaren errealitatearen berri ematea | ▪ Lagundutako 9 argitalpen gizarte ekonomian espezializatutako liburu eta aldizkarietan | ▪ Ez da aplikagarria |
| Erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetza sustatzea gizarte ekonomia Euskadin sustatzeko. Horretarako, gutxienez, euskal agintari publikoen eta euskal gizarte ekonomiako erakunde, mugimendu kooperatibo eta lan elkarte aipagarrienen artean asmo onen eta lankidetzarako 2 hitzarmen sinatuko dira | ▪ Ez da akordiorik izenpetu. Zirriborro-fasean daude. | ▪ Ez da aplikagarria |
| Gizarte ekonomiako enpresak halako enpresen kudeaketaren betekizun berriei egokitzen laguntzea: sektoreko entitate aipagarrienek informazio eta trebakuntza jarduera espezifikoak burutuko dituzte. | ▪ Korporazio-gobernuko eredu berria ezarri duten 6 lan-sozietate | ▪ Ez da aplikagarria |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gizarte ekonomian elkarteak sortzea sendotzea, gizarte ekonomiako enpresen elkarte-erakundeen mantentzea lagunduz | ▪ 12 elkarte-erakunde lagundu dira | ▪ Ez da aplikagarria |
| Eusko Jaurlaritzak 2018an zehar Kooperatiben Legearen proiektua onestea | ▪ Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 18an onartu zuen Kooperatiben Legearen Proiektua, eta Parlamentuari bidali zion, horrek onar zezan | ▪ Ez da aplikagarria |

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Lan-iruzurraren aurkako borroka** sendotzea, lan-zentroetako baldintzen gainbegiratzea areagotuta eta ikuskaritza-zerbitzuak indartuta. | ▪ Lan-ikuskaritza kanpainak areagotzea giza-baliabideak sendotzearen ondorioz: segurtasuneko eta osasuneko ikuskatzaileordeen 6 lanpostu sortu dira eta lan-ikuskarien eta gizarte-segurantzako ikuskarien 10 lanpostu; genero berdintasunean espezializatutako unitateak sortu dira.<br>▪ Lan-ikuskaritzako langile guztiei berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa sendotzea eta emakumeen eta gizonen berdintasun gaiei buruzko kanpainen jarraipena: Berdintasun Planen eta Berdintasunaren Legeak ezartzen dituen bestelako obligazioen kontrola; lan-harremanetan gertatzen diren diskriminaziozko egoeren kontrola, bai orokorrean eta bai soldata-arraila gaietan modu espezifikoan; lan-arriskuen prebentzioaren arloko jarduerak genero-ikuspegiarekin (ostalaritzako gela-zerbitzarien kanpaina nabarmenduz); eta sexu-jazarpenaren eta sexuaren ondoriozko diskriminaziozko jazarpenaren aurkako jarduerak.<br>▪ Berdintasunaren alorreko ekintza positiboko neurriak badirela ikusi da zenbait ikuskaritza-kanpaina orokorrei esker: kontratazio-iruzurraren aurkako kanpaina, bereziki iruzurrezko aldi baterako kontratazioaren eta lanaldi partzialeko kontratazioaren aurkakoa, eta lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko eskubideen inguruko kanpaina. |
| **Lan-arriskuen prebentzioaren kultura** sustatzea hainbat zabalkunde-ekintzari esker, besteak beste: prestakuntza, jardunaldien eta ekitaldien antolaketa eta komunikabideetarako kanpainak prestatzea. | ▪ 24 elkarrizketa irrati, telebista eta egunkarietan eta 40 prentsa-ohar, erreportaje eta programa inguru.<br>▪ Izaera teknikoko eta hedapenerako 12 jardunaldiren garapena; enpresei, prebentzioko ordezkariei eta administrazio publikoen eta prebentzioko erakundeen teknikariei zuzenduta daudenak.<br>▪ Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko<br>▪<br>IV. Biltzarraren antolakuntza: “Etorkizuneko lan erronken aurrera begirako azterketa”.<br>▪ Gizarte sareetan presentzia, Osalanek eta Itxasprebenek YouTube-n, Facebook-en eta Twitter-en dituzten kanalen bidez.<br>▪ Osalanen parte hartzea 7 kongresu eta sinposiotan eta izaera teknikoko eta hedapenerako 16 jardunalditan Lanbide Heziketako ikasleentzat (ADI programa); eta lehen hezkuntzan proiektu pilotu baten garapena, prebentzioaren kultura hedatzeko, osasunarentzako heziketaren edukiekin lotuz. |
| **Genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentzioan barne hartzeari** buruzko zabalkunde-ekintzen garapena. | ▪ Osalanen webgunean dagoen “genero” atalaren eguneratzea, lan-taldeak argitaratutako lan hauek barneratuz: "Emakume eta gizonen egoera lan-istripuei eta gaixotasun profesionalei dagokienez" eta "Genero-ikuspegia lan-arriskuen prebentzioan barne hartzeko jarraibideak"; Osalanen 2018-2021 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana barneratu da baita ere.<br>▪ Emakunderekin elkarlana “Laneko osasuna eta genero-ikuspegia” gaiaren inguruko jardunaldia antolatzeko, eta baita eremu horretako beste ekitaldi batzuetan parte hartzeko ere. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Hitzarmen kolektiboen % 75ko estaldura lortzea 2020. urteko amaieran | ▪ 272.983 langile indarrean dauden hitzarmen kolektiboekin (218.423 langile luzatutako hitzarmen kolektiboekin)<br>▪ Langile guztien kopuruarekin alderatuta, langileen % 47k du indarrean dagoen hitzarmen kolektibo bat (% 38 luzatutako hitzarmen kolektiboen kasuan) | ▪ Aurreikusitako estaldura-tasaren % 63 bete da |
| Urteko trebatze-ekintza bidez Prebentzioko Delegatuek beharko dituzten trebatze-ekintzak bermatzea | ▪ 993 Prebentzio Ordezkari prestatu dira (613 gizon eta 380 emakume) | ▪ Ez da aplikagarria |
| Laguntzak emateko Dekretu arautzailea aldatzea Enpresa-elkarteek eta sindikatu-erakundeek beren jarduera eremuetako berezko gaietan langileen prestakuntza hobetzeko planak garatu ditzaten | ▪ Dekretu arautzaile berriaren argitalpena: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lan-arriskuen prebentzioari buruzko jakintza sustatzea enpresen lehiakortasuna hobetzeko orduan | ▪ Komunikabide orokorretan eta espezifikoetan kontzientziazioko urteko kanpainak egitea: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lan istripuen kostu ekonomikoari buruzko ikerketa egitea | ▪ Lan-istripuen kostu ekonomikoari buruzko azterlana burutzea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lantokien lan-baldintzak hobeto zaintzea lan-ikuskaritzak eginez eta ekintzen % 15 areagotuz 2017ri dagokionez | ▪ 41.542 ikuskaritza lan-zentroetan<br>▪ Ikuskaritzak % 12an areagotzea, 2017. urtearekin alderatuta | ▪ Aurreikusitako ikuskaritzen areagotzearen % 80 bete da |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Ikuskaritza kanpainen emaitzak hobetzea kontratazio eta lanaldiari dagokionez, aldi baterako kontratuen % 100 berrikusiz 2020eko amaieran | ▪ 17.991 kontratu berrikusi<br>▪ Berrikusi diren kontratuen % 44 bilakatu egin da | ▪ Betetze-maila 2017-2020 aldia amaitzean ebaluatuko da |
| Urtero, egindako ikuskaritza-kanpainen emaitzak gizarte eragileei eta gizarteari jakinaraztea | ▪ Ikuskaritza-kanpainen emaitzak aldizka zabaltzea: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Sindikatze-maila baxua duten taldeen ikuskaritza erraztea, Lan-iruzurraren aurkako Hiritarren Postontziaren bidez eta beste komunikazio-kanaletara zabaltzea | ▪ 239 salaketa jaso dira (125 gizon eta 114 emakume)<br>▪ Lan-iruzurraren aurkako Hiritarren Postontziaren eskuragarritasuna telefono bidez: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpresako eragileei eta gizarte-eragileei berdintasun arloan sentsibilizatzea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuneko Planak 250 langile baino gutxiagoko enpresetan barneratzeko hitzarmen kolektiboaren bitartez | ▪ Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana edukitzeko obligazioa barneratuta duten euskal eremuko hitzarmen kolektiboen kopurua: 2019tik aurrera kuantifikatuko da | ▪ Ez da aplikagarria |
| Emakunderekin enpresetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko finkatutako lankidetza-hitzarmenari esker sortutako urteko lan-plana zehaztea | ▪ Enpresatan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko urteko lan-planaren lanketa: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |

9. Jarduera Esparrua

# EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN HOBEKUNTZA

## 9.1 JARDUERA-ILDOA - LANBIDE ZERBITZUAREN ERREFORMA ETA MODERNIZAZIOA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Zerbitzuen, arreta-prozesuen** eta baliabide pertsonalen homogeneizazioa. | ▪ 17 bulegotan arreta-eredu berriaren ezarpenarena, hau da, guztizkoaren % 40 (42 bulego).<br>▪ Hiritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuen arreta-prozesuen homogeneizazioa, lanak 2 arreta-mailatan antolatuz: langileen kudeaketa (1. maila) eta teknikariak (2. maila). |
| Lanbide modernizatzeko **laguntza-ekintzen** garapena. | ▪ Enpleguko bulegoetan barne-arretarako euskarria bateratzea, ITSM tresna teknologikoaren bitartez.<br>▪ Enpleguko bulegoetan izapidetutako agirien erregistro digitalizatuaren ezarpenean aurrerapausoak.<br>▪ “Tablet” gailuen bidez sinadura digitalaren modalitatearen ezarpena eskuzko sinadura behar duten agiri guztietarako, eta 10 bulegotan borondatezko datu biometrikoen bilketa abiaraztea.<br>▪ Itxaronaldi kudeatzailearekin integratutako hitzordu kudeatzailearen sorrera. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| 2018. urtean zehar arreta-eredu berriaren ezarpena zabaltzea Lanbide bulego-sare osoari. | ▪ 17 bulego arreta-eredu berriarekin<br>▪ Sareko bulego guztien % 40 arreta-eredu berriarekin | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enplegu-eskatzaileei laguntza integral eta pertsonalizatua ematea. | ▪ 112.139 pertsonek parte hartu dute laneratze ibilbide pertsonalizatuetan (estimazioen arabera, % 49 gizonak eta % 51 emakumeak)<br>▪ % 35 parte-hartzaile ibilbide pertsonalizatuetan, langabe guztien kopuruarekin alderatuta | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroa izatea. | ▪ Enpresei zuzendutako zerbitzu-zorroaren garapena: EZ | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lankide publiko eta pribatuekin eta gizarte-zerbitzuekin mantendutako harremanetarako protokoloak sortzea. | ▪ 166 eragile adostutako protokoloarekin<br>▪ Eragileen % 66 parte-hartzaile guztien kopuruarekin alderatuta | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lanbide zerbitzurako bulego estandar berri baten eredua diseinatzea eta bulego hori Lanbide bulegoen sare osora hedatzeko plana ezartzea. | ▪ Bulego 1 bulego estandarraren eredu berrira egokituta<br>▪ % 2 bulego estandarraren eredu berrira egokituta, sareko guztirako bulego kopuruarekin alderatuta | ▪ Ez da aplikagarria |

## 9.2 JARDUERA-ILDOA - BEHAKETA ETA PROSPEKTIBA LANEN HOBEKUNTZA ENPLEGUAREN ALORREAN

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| **Future Lan** tresna prospektiboa sendotzea informazio- eta prospekzio-sistema integratu gisa. | ▪ Future Lan eredu ekonometrikoaren berrikuspena, lan-merkatuko, Kontratuen Erregistroko, proiekzio demografikoen eta enpleguaren eskarian eta eskaintzan dauden eraginei buruzko datu eguneratuak ereduan barneratuz.<br>▪ Dagoen informazioa 62 lanerako talde gehiagori helaraztea.<br>▪ Future Lan ereduaren alderdi kualitatiboaren berrikuspena, sektore jakinetako enpresa-elkarteei eta klusterrei inkestak burututa eta etorkizunari aurrea hartzeko txostenak ezagutzera emanda.<br>▪ Future Lan-en webgunearen formatuan hobekuntzak.<br>▪ Biztanleria aktiboaren zahartzearen eraginen azterketa, ordezkapen bidezko enplegu-eskaerari dagokienez |
| Prospekzio- eta alderatze-ekintzen garapena, enpleguaren alorreko **bestelako eragile adituekin lankidetzan.** | ▪ Millenium proiektuaren jarraipena, eszenatokiak identifikatzeko metodologian oinarritutakoa.<br>▪ Egiaztatzeak egitea eskualdeko eragileekin bileren bidez. Bileretan joerazko eszenatokietan garatu beharreko estrategiak jorratuko dira. Bereziki, biztanleria aktiboaren zahartzearen joera eta produkzioaren eta zerbitzuen automatizazioa kontutan izan dira. |
| Enpleguaren arloko estrategia eta politiken plangintza egiteko orduan zaintzaren eta adimen estrategikoren sistematikak duen garrantzia **ezagutzera emateko** jarduera. | ▪ Lanbide Heziketako V. Plana laguntzeko tresnen garapenean parte hartzea, familia profesionalen araberako prestakuntza-beharren proiekzioaren esparruan.<br>▪ SPRIrekin batera sektore jakinetako enpresa-elkarteekin eta klusterrekin lankidetzan aritzea, informazio prospektibo kuantitatiboa zein kualitatiboa elkarbanatzeko.<br>▪ Biltzar, foro eta Ekitaldietan parte hartzea, Future Lan-en zerbitzua hedatzeko. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enpleguaren alorreko behaketa eta prospektiba lana sustatzea Future Lan tresna indartzeari esker. | ▪ Future Lan tresnaren alderdi kualitatiboa abian jartzea: BAI<br>▪ Bi urtean behin eredurako ezarritako datu kuantitatiboak aztertzea: BAI | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enpleguaren alorreko programen eta deialdien ebaluazioetatik ateratako informazioa eta emaitzak biltzeko eredu bat diseinatzea. | ▪ Informazioa eta emaitzak biltzeko eredua sortzea: BAI | ▪ Ez da aplikagarria |
| Prospekzio- eta alderatze-ekintzen garapena areagotzea, enpleguaren alorreko bestelako eragile adituekin lankidetzan. | ▪ 2 benchmarking-txosten eta EAEari egokitutako Millenium proiektuaren emaitzak | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lanbidek eta lurraldeko edo sektoreko beste eragile nabarmen batzuek egin duten aurrera begirako lanaren emaitzak zabal daitezen sustatzea, lan-merkatuko eragile garrantzitsu guztiek enpleguaren gaineko joerak eta aukerak ezagut ditzaten, horiekin bat datozen estrategiak eta planak zehaztu eta planifikatzeko. | ▪ Aurrera begirako lanaren emaitzak urtean behin zabaltzea: BAI | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lanbidek egindako aurrera begirako lanaren barruan berariazko ildoa sartzea, hain zuzen, merkatuko nahiz gizarte-izaeradun enpresa-ekimen berriak sortzeko bidetik aprobetxa daitezkeen aukerak identifikatu eta zabaltzearekin loturikoa. | ▪ Aukerak identifikatu eta zabaltzeko ildoa sartzea, Future Lan tresnaren zati gisa: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Biztanleria aktiboaren zahartzeak, lan-merkatuan enpleguaren saldo garbiei dagokienez, dakartzan ondorioen berri ematea eta, zeregin horretan, enplegu-osagaietan, ordezte-enplegua eta enplegu berria bereiztea jarduera-adar eta lanerako talde nagusientzat. | ▪ Biztanleria aktiboaren zahartzeak, enpleguaren saldo garbiei dagokienez, dakartzan ondorioen gaineko txostena egitea urtean behin: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Aurreratze kuantitatiboari buruzko informazioa aberasten duten eta jatorria gizarte-eragileen eta sektore produktiboen ordezkarien parte-hartze aktiboko ereduetan eta nazioarteko erakunde eta adituen ereduetan duten prospektiba kualitatiboko osagaiak garatzea. | ▪ Gizarte-eragile eta sektore produktiboen ordezkariekin prospektiba-arloan dauden foroetan parte hartzea: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |

## 9.3 JARDUERA-ILDOA - ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO ZERBITZU ETA PROGRAMEN EBALUAZIOAN SAKONTZEA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
| --- | --- |
| Enpleguarekin lotutako zerbitzuen eta programen ebaluazioak burutzea sustatzea. | ▪ Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-eredua Lanbiden ezartzearen onespena, eta baita jarraipen, kontrol eta ebaluazio eredua ere.<br>▪ Ebaluazio-ekimenen garapenean jarraipena, honako alor hauetan:<br>– Bereziki langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntza-programak.<br>– Enpresei zuzendutako zerbitzuen programak.<br>– Unibertsitate-prestakuntzarako eta prestakuntza arautu profesionalerako programak.<br>– Lan-orientazioa.<br>– Enplegu Bulegoetan jasotako zerbitzuekiko asebetetze-maila.<br>– Enplegu Politiken Urteko Plana (PAPE).<br>▪ EVADES programa aplikatzen jarraitzea. Programa horren bidez Lanbideren jardueran eragiten duten faktoreen ebaluazioa egiten da.<br>▪ Erantzukizun Fiskaleko Autoritate Independenteak (Airef), Enplegurako Politika Aktiboen ebaluazio-txostenaren ondorio gisa, zehaztutako jardunbide egokiak eta aholkuak aplikatzea eta jarraitzea. |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Emaitzen ebaluazioa enplegu-programa eta -zerbitzu guztietara hedatzea. | ▪ 10 programa eta zerbitzu ebaluatu<br>▪ Enplegu-bulegoen zerbitzuen % 100 asebetetze-mailaren ebaluazioarekin | ▪ Ez da aplikagarria |
| Enplegu-programa eta -zerbitzu nagusien ebaluazioen emaitzak modu ulergarrian hedatzea. | ▪ Burututako ebaluazioen zabalkunde orokorra: BAI, intraneten argitaratu da | ▪ Ez da aplikagarria |
| 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren esparruan desgaitasuna dutenentzat, DSBEren onuradunentzat eta 45 urtetiko gorakoentzat garatutako jardueren eraginaren berariazko ebaluazioa sartzea. | ▪ Desgaitasuna duten 9.394 pertsonek parte hartu dute 2018ko Enplegurako Plan Operatiboan<br>▪ 2018ko Enplegu Plan Operatiboaren desgaitasundunentzako jardueren eragina ebaluatzea: Ez<br>▪ 22.591 DSBEren onuradunek parte hartu dute 2018ko Enplegu Plan Operatiboaren jardueretan<br>▪ 2018ko Enplegu Plan Operatiboaren DSBEren onuradunentzako jardueren eragina ebaluatzea: Ez<br>▪ 45 urtetik gorako 49.707 pertsonek parte hartu dute 2018ko Enplegu Plan Operatiboaren jarduereetan<br>▪ 2018ko Enplegu Plan Operatiboren 45 urtetik gorakoentzako jardueren eragina ebaluatzea: Ez | ▪ Ez da aplikagarria |

| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Enplegu-zerbitzuetako Europako sareko partaideek eta Enplegu Sistema Nazionaleko zerbitzuek garatutako jardunbide egokien eta programa pilotuen berri emateko sistema zehaztea Lanbiden. | ▪ 2018an jardunbide egokien eta programa pilotuen berri emateko sistema martxan jartzea: Bai | ▪ Ez da aplikagarria |
| Lanbidek garatutako politika aktiboetan kokatutako jarduera guztien gogobetetzea eta jarraipena ebaluatzeko sistema aplikatzea. | ▪ Enplegurako politika aktiboen jardueren % 33 a ebaluatu da, jarduera guztien kopuruarekin alderatuta | ▪ Ez da aplikagarria |

## Zeharkako Esparrua

# EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA

## Zeharkako jarduera-ildoa: EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA

| Gauzatutako ekintzak | 2018ko elementu esanguratsuenak/mugarriak |
|---|---|
| Emakumeen enplegagarritasunaren hobekuntzarekin lotutako **ekintza positiboko irizpideak** barne hartzea enplegua sustatzeko hainbat programatan. | ▪ Laguntzen zenbatekoa % 10era arte areagotzea emakumeen kontratoziorako hainbat laguntza-ildotan, hala nola Lehen Aukera programa, gazteen itzulerarako programa edo desgaitasuna duten pertsonen kontrataziorako lagundutako enpleguaren programa. Bestalde, ekonomia sozialeko enpresetara bazkide gisa emakumeak erakartzeko diru-laguntzen zenbatekoa % 15ean areagotu da.<br>▪ Emakumeen ekintzailetza sustatzea, ideia bat garatzeko edo enpresa-jarduerak abian jarri eta/edo sendotzeko laguntzak % 15era arte areagotuz, Pertsona Ekintzaileen Laguntza programaren esparruan; edo diru-laguntzen zenbateko jakin bat titularrak emakumeak diren enpresen ekintzailetzara zuzenduz.<br>▪ Gutxieneko % 40ko ehunekoaren betekizuna ezartzea emakumeen kontratazioaren alde, esaterako, Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetan. Ildo beretik, Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren baldintzetako bat da tokiko erakundeek gazteak kontratatzeko egiten dituzten hautespen-prozesu guztietan, gutxienez, emakume bat parte hartu behar duela.<br>▪ Bestalde, antolatutako Lan Eskaintza Publikoek berdinketa emakumeen alde hausteko irizpidea ezarri dute emakumeek % 40tik beherako ordezkaritza-portzentajea duten kidego edo eskalen kasuan.<br>▪ Emakumeak lehentasunezko kolektibotzat jotzea enplegurako prestakuntza-ekintzetan. Helburua da emakumeek langabetuen guztizkoan duten proportzio berean parte hartzea.<br>▪ Emakumeek aurkeztutako eskaeren balorazioa areagotzea landa-inguruneetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko laguntza-programa jakinetan.<br>▪ Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Planaren balioa saritzea, bai eta Emakunderen erakunde laguntzaile izatearen balioa ere, tokiko garapen-alor jakinetan, esaterako, turismoa eta merkataritza, non modernizaziorako eta hobekuntzarako laguntzak eskatzen dituzten enpresek, baldintza hauetakoren bat betez gero, haien eskarien balorazioan 3 puntu gehiago izango dituzten (guztizko puntuazioa 100 da). |



| 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoak | Adierazleen kuantifikazioa 2018/12/31 datan | 2018rako aurreikusitako helburu espezifikoen betetze-maila |
|---|---|---|
| Gutxienez ere Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako pertsonen % 40 emakumeak izan daitezen bermatzea. | ▪ 1.281 emakume kontratatu Tokiko Enplegu Planei esker (estimazioen arabera)<br>▪ Tokiko Enplegu Planen bitartez kontratatutako pertsona guztien % 56 emakumeak (estimazioen arabera) | ▪ Aurreikusitako helburua gainditu da (% 40 gehiago) |
| Ekintza positiboa indartzea, gutxienez ere %10eko areagotzeekin laguntza ekonomikoetan eta kontratazioa eta ekintzailetza sustatzeko programa jakinetan | ▪ 216 emakume kontratatu ekintza positiboko neurriak dituzten kontrataziorako pizgarriei esker (92 Lehen Aukera programan + 1 gazteen itzulerarako programan + 87 gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko programan + 36 desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzeko programan)<br>▪ Emakumeek zuzendutako 103 enpresa berri ekintza positiboko neurriak dituzten ekintzailetza sustatzeko programei esker | ▪ Ez da aplikagarria |
| Adingabeak edo menpekotasun egoeran dauden senideak zaintzeko lan-merkatua aldi baterako utzi duten pertsona-taldea (batez ere, emakumeak) kuantifikatzeko eta karakterizatzeko fasea garatzea. Helburua pertsona hauek berriro lan-merkatura sartzen laguntzeko ekintza integralen proposamenak zehaztea da | ▪ 2019rako aurreikusita | ▪ Ez da aplikagarria |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU**
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 6- Generoaren eta adinaren ikuspegia

# Genero-ikuspegia



2018. Urteko Plan Operatiboan aurreikusitako jarduera-ildoen garapen-maila aztertuz, ondoriozta daiteke **batezbesteko inpaktu orokorra antzekoa izan dela gizonengan (% 52) eta emakumeengan (% 48).** Hala ere, desberdintasun batzuk antzeman dira gizonen presentzia handiagoa duten alor edo jarduera jakinetan (esaterako, landa-inguruneko eta kostaldeko edo gizarte-ekonomiako enpleguaren sustapenean) edo emakumeen presentzia handiagoa dutenenetan (esaterako, familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzetan).

Kontuan hartu behar da genero-ikuspegiaren analisia espezifikoki pertsonei zuzendutako ekintzetan oinarritu dela (hala nola bekak, kontratazziorako laguntza zuzenak, enplegu babesturako laguntzak, prestakuntza-ekintzak eta ekintzailetza-ekintzak), betiere sexuaren arabera banatutako datuen eskuragarritasun errealaren mende.

Emaitzak ekintza-arloka kontutan hartuz gero, hauteman da **goranzko joera arina dagoela autoenplegurantz eta mikroekintzailetzarantz gizonen aldetik (% 55),** honako programetan ikus daitekeen moduan: Pertsona Ekintzaileei Laguntza emateko programak, Gaztempresa edo Dema programaren moduko beste eragile batzuekin lankidetzan garatutako laguntza-ildoak. Joera hau nabarmenagoa da gizarte ekintzailetzan, zeinetan gizonen parte-hartzeak gehiengo zatia hartu duen (% 63).

**Gazte enpleguaren alorrean, gizon eta emakumeen presentzia orekatua dago orokorrean** jarduera-ildo guztietan, baina emakumeen presentzia handiagoa ikusten da programa zehatzetan, hala nola hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzekoetan (% 53), Erasmus beken moduko nazioarteko mugikortasuna bultzatzeko hezkuntza-programetan (% 59), edo atzerrian garatutako zenbait esperientzia-programetan, adibidez, Global Training diru-laguntzak (% 54). Gazteen kontratazziorako pizgarriei dagokienez, Lehen Aukera edo gazteen itzulera babesteko programaren modukoek gizonen parte-hartzea izan dute gehienbat (% 70 eta % 83 hurrenez hurren), emakumeen kontratazziorako ekintza positiboko neurriak izan arren. Joera hau txanda-kontratuak sustatzeko programan ikusten da baita ere (% 74 gizonak).

**Enplegurako Prestakuntzari** dagokionez, **gizonen presentzia arinki handiagoa da** (% 54) **langabetuei zuzendutako ekintzen kasuan,** baina emakumeen parte hartzea arinki handiagoa izan da langileei zuzendutako ekintzen kasuan (% 53). Era berean, kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan emakumeek gehiago parte hartu dutela hauteman da (% 56).

Lan-munduan txertatzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen enplegagarritasuna hobetzeko laguntza-ekintzei dagokienez, **emakumeek parte-hartze handiagoa izan dute (% 56) Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen moduko inpaktu nabarmeneko programetan.** Zentzu horretan, kontuan hartu beharra dago programa honek % 40ko gutxieneko betekizuna ezartzen duela emakumeen kontratazioaren alde, kontratatutako pertsona guztiekin alderatuta. Halaber, emakumeen presentzia handiagoa da (% 82) lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko enpresei zuzendutako laguntza-programaren bidez lagundutako kontratazioen kasuan

Bestalde, **desgaitasuna duten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen trebakuntzan, gizonek emakumeek baino parte-hartze handiagoa izan dute (% 64).** Joera hau bereziki aipagarria da Enplegu Zentro Berezietan, non emakumeen presentzia oso baxua den (% 35).

# Adinaren ikuspegia

Adinaren ikuspegia **modu integralean jorratzen da 2018ko Ekintza Plan Operatiboan, alorren eta programen arabera,** baina **bi kolektibo nagusi ezarri dira laguntza-neurri espezifikoen onuradun** gisa: gazteak eta 45 urtetik gorako pertsonak.

Horrela, **gazteek**, Planean dauden 9 esparruen artean, esparru operatibo propioa dute, **"3. Esparru Operatiboa. Gazteen Enplegua Sustatzea"**, non hainbat laguntza-programen bidez gazteen laneratzea erraztea helburu duten jarduera-ildoak zehazten diren. Programa horiek barne hartu dituzte gazteen **kontratazioko pizgarri espezifikoak,** hartara gazteen hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa erraztuta, haien titulazioarekin lotutako enpleguetan lehen lan-aukera bat ahalbidetuta, enpresetan edo administrazio publikoan bertan belaunaldi-erreleboari esker gertatzen den ordezkapen-enplegua sustatuta eta enplegua sustatzeko tokiko proiektuetan eta, 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Operatiboen esparruan, tokiko erakundeen beste proiektuetan parte hartzea bultzatuta.

Halaber, gazteen **kualifikazioa eta trebakuntza** sustatu dira atzerrian garatutako esperientzia-programei eta enplegurako eta prestakuntzarako prestakuntza-ekintza eta ekimen mistoei esker, hala nola prestakuntza duala, unibertsitatearen eta lanbide heziketaren esparruan. Bestalde, prestakuntza-ekintza espezifikoak abian jarri dira, kualifikazio baxua duten gazteen gizarteratzea eta laneratzea aktibatzeko.

**Ekintzailetzaren kultura** eta **gazte ekintzailetza** ere espezifikoki sustatu dira, unibertsitateen zein lanbide-heziketaren alorrean; ideia berrien garapenerako eta gazte ekintzailetza-proiektuak abian jartzeko eta sendotzeko laguntzak eman dira. Bestalde, tokiko garapenaren ekintza-esparruarekin lotutako programa jakinek espezifikoki sustatu dituzte landa-inguruneetako eta kostaldeko gazte ekintzailetza eta esperientzia-praktikoa eskuratzea edo merkataritzaren moduko sektoreen profesionalizazioa gazteen kualifikaziorako ekintza espezifikoei esker.

45 urte baino gehiagoko pertsonei dagokienez, lehentasunezko kolektibotzat jo dira hainbat jardueratan; bereziki, prestakuntza-ekintzen bidez haien enplegagarritasuna hobetzera zuzentzen direnetan, lan-munduan txertatzeko laguntza-ekintza bateratuetan eta tokiko proiektuetan kontratatzeko pizgarrietan. Jarduera horien barruan, honako ekintzak egon dira: lan-merkatuak eskatzen dituen kualifikazioekin eta gaitasunekin lerrokaturiko langabetuen prestakuntza osagarrira zuzendutako prestakuntza-ekintzak; prestakuntzarako eta enplegu aktibaziorako ekintza berritzaile bateratuak, heziketa, esperientzia praktikoa, orientazioa eta lan merkatuan txartatzeko laguntza bateratzen dituztenak (proiektu singularrak); edo haien zeharkako gaitasunak eta gaitasun pertsonalak hobetzera bideratutako ekintzak, hala nola enplegurako anezkak.

Kontratatzeko pizgarriei dagokienez, 45 urtetik gorakoen kontratazioa sustatu da Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen esparruan, lehentasunezko kolektibo onuradun gisa jo baitira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 7- Testuinguruaren adierazle orokorrak

# Testuinguruaren adierazle orokorrak

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK | ABIAPUNTUKO EGOERA (2016) | 2017ko EGOERA | 2018ko EGOERA | DATA ETA ITURRIA | 2018-2016ko EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| BPGd-aren urteko hazkundea (%) | % 3,1 | % 2,9 | % 2,8 | 2015-2016; 2016-2017; 2017-2018 urtetik urterakoa. Eustat | ▼ |
| Enpresa-ezarpenen saldo garbia (altak - bajak) | -710 | -281 | -1.544 | 2015-2016; 2016-2017; 2017-2018 urtetik urterakoa (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▼ |
| Sortutako enpresa-ezarpenen kopurua | 16.045 | 15.015 | 13.550 | 2016; 2017; 2018 (urtarrilaren 1eko datuak). Eustat | ▼ |
| Esportazioen urteko bolumena (milioi eurotan) | 21.596 | 23.857 | 25.487 | 2016; 2017; 2018. Eustat | ▲ |
| I+G gastua BPGd-arekin alderatuta (%) | % 1,84 | % 1,82 | % 1,85 | 2015; 2016; 2017. Eustat | ▲ |

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK | ABIAPUNTUKO EGOERA (2016) | 2017ko EGOERA | 2018ko EGOERA | DATA ETA ITURRIA | 2018-2016ko EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa (milaka pertsonatan, PRA) | 1.032,3 | 1.033,1 | 1.044,7 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |
| Jarduera-tasa 16 urte edo gehiago (%, PRA) | % 56,4 | % 56,2 | % 56,6 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |
| Lanean ari diren pertsonak (milaka, PRA) | 902,8 | 918,3 | 937,4 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |
| Gizarte Segurantzan afiliatutako pertsonak (milaka pertsonatan, hilabeteko batez bestekoa) | 925,3 | 943,98 | 962,1 | 2016; 2017; 2018ko abendua (hilabeteko batez bestekoa). Gizarte Segurantza | ▲ |
| Enplegu-tasa 16 - 64 urte (%, PRA) | % 65,9 | % 66,5 | % 68 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |
| Langabezian dauden pertsonak (milaka pertsonatan, PRA) | 130,1 | 114,8 | 107,3 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |
| Langabezia-tasa (%, PRA) | % 12,6 | % 11,2 | % 10,3 | 2016; 2017; 2018ko IV. hiruhilekoa . Eustat | ▲ |

| ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK | ABIAPUNTUKO EGOERA (2016) | 2017ko EGOERA | 2018ko EGOERA | DATA ETA ITURRIA | 2018-2016ko EBOLUZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| Erregistratutako langabezia (milaka pertsonatan, Lanbide) | 136 ,2 | 127,5 | 119,7 | 2016; 2017; 2018ko abendua. Lanbide | ▲ |
| Enplegu-erregulazioko espedienteak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira) | 6.283 | 4.342 | 3.187 | 2016; 2017; 2018. urteko datu metatuak. Lan saila | ▲ |
| Enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko hutsaltzeak izan dituzten pertsonen kopurua (guztira) | 638 | 997 | 533 | 2016; 2017; 2018. urteko datu metatuak. Lan saila | ▲ |
| Baimendutako eta/edo komunikatutako enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua (guztira) | 446 | 266 | 187 | 2016; 2017; 2018. urteko datu metatuak. Lan saila | ▲ |
| Emakumeen jarduera-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA) | -9,50 | -9,40 | -9,6 | 2016; 2017; 2018ko IV. Hiruhilekoa. Eustat | ▼ |
| Emakumeen langabezia-tasaren diferentziala gizonenarekin alderatuta (p.p, PRA) | 0,06 | 0,05 | 0,04 | 2016; 2017; 2018ko IV. Hiruhilekoa. Eustat | ▲ |
| Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka) | 34,6 | 30,67 | 29,91 | 2016; 2017; 2018ko abendua. Lanbide | ▲ |
| Luzaroko langabeak (25 urtetik gorakoak langabezia urtebete edo gehiago daramatenak eta 25 urtetik beherakoak langabezian 6 hilabete edo gehiago daramatzatenak) Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandakoak (milaka) | 72,5 | 67,5 | 61,1 | 2016; 2017; 2018ko abendua. Lanbide | ▲ |
| Aldi baterako kontratazio-tasa (%, EPA) | % 23,4 | % 26,10 | % 26,5 | 2016; 2017; 2018ko IV. Hiruhilekoa. EIN | ▼ |
| Lanaldi partzialeko kontratazio-tasa (%, EPA) | % 17,7 | % 16,80 | % 16,4 | 2016; 2017; 2018ko IV. Hiruhilekoa. EIN | ▲ |
| Lanaldian baja dakarten laneko istripuen intzidentzia-tasa (milakoa) | 3 | 3 | 2,6 | 2016; 2017; 2018ko abendua (hileroko indizea). Osalan. | ▲ |



ENPLEGU
PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2020

# 8- Ondorioak eta balorazio orokorra

# Ondorioak eta balorazio orokorra

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa diseinatu zen EEE 2020 (Enpleguaren Euskal Estrategia 2020) dokumentuan definitutako planteamendu estrategikoa zehazteko helburua zuen ekintza-plan gisa. Plan Estrategiko honen helburua da Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzaren enplegua sustatzeko programak eta zerbitzuak aldi berean koordinatzeko instrumentu bat garatzea. Hori guztia enpleguaren kontzeptu zabal batetik, hau da, lanaren, hezkuntzaren eta sustapen ekonomikoaren alderdiak ere barne hartuta. Bestalde, Enplegu Plan Estrategiko hau 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programaren bi ardatzetako bat da, suspertze ekonomikoaren ardatzarekin batera.

Maila eraginkorrean, Enplegu Plan Estrategikoa **2018, 2019 eta 2020 urteetarako Ekintza Plan Operatiboetan** banatzen da; beraz, **lehenengo plana 2018. Urteko Ekintza Plan Operatiboa da**, eta baditu urteko helburu espezifikoak.

Plana abian jartzeko aurreikusitako aurrekontua 1.175 milioi eurokoa da 2017-2020 aldirako eta, horietatik, 296,8 milioi euroko aurrekontua onartu zen 2018. urterako. **Planean aurreikusitako jarduera-ildoen garapenak 2018an zehar 305 milioi euroko aurrekontu-exekuzioa eragin du, hau da, 2018rako aurreikusitako aurrekontuaren % 103. 2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, aurrekontu-exekuzioak 2017-2020 aldirako aurreikusitako guztizkoaren % 49 suposatuko luke.** Ekintza-arlo guztiek aurrerapen-maila handia ageri dute 2018ko urteko aurrekontu-exekuzioan. Exekuzio-maila altuena izan duen arloa gazte enpleguaren sustapena izan da (% 119), lan-munduan txertatzeko pizgarriek (% 108) jarraituta.

Emaitza kuantitatiboen ikuspuntutik, Planak lan-merkaturako inpaktu orokorra kalkulatu zuen, honela zehaztu zena: 58.000 enpleguren sustapena, 6.000 enpresa berriren sorrera eta 20.000 gazteri lan-aukera bat eskaintzea. 2018an zehar burututako jarduerei esker, **18.344 enplegu sustatu dira eta 1.970 enpresa sortu dira. Emaitza hauek, 2017an lortutakoei gehituta (laguntzei esker sortutako 15.799 enplegu eta sortutako 1.557 enpresa), 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako laguntza bidez sortutako enpleguen helburuaren % 59 betetzea eta enpresa berrien sorrerarako helburuaren % 59 betetzea dakarte.** Geratzen diren 2 urteetarako antzeko egoera bat kalkulatuta urtero, horrek esan nahiko luke 2017-2020rako zeuden bi helburuak bete eta gainditu egingo direla.

Gazte enpleguaren sustapenaren aldetik, **10.259 gaztek izan dute lan-aukera bat 2018an hainbat programari esker,** besteak beste, beren titulazioarekin lotutako eta tokiko erakundeetan lanpostuetarako enpresen aldetiko kontratazioa, ekintzailetza gaztea, hezkuntza-arlotik lan-mundura igarotzeko lehenengo esperientzia, nazioarteko esparruan esperientzia praktikoa lortzeko bekak eta langileen berrikuntza Lan Eskaintza Publikoen eta txanda-kontratuen bidez. **Emaitza hauek, 2017an lortutakoekin batera (6.856 gazte), % 86ko ekarpena egiten diote 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuei**, beraz, planaren irismen-alditik geratzen diren 2 urteetan zehar estrapolatuta, estima daiteke gazteen enpleguarekin lotutako emaitzek erritmo horretan jarraituz gero, 2017-2020 aldirako gazte enpleguaren arloan aurreikusitako helburua beteko eta gaindituko litzateke.

Inpaktu handiko emaitza hauek Planean planteatutako bi helburu estrategikoren betetzea errazten dute. Hirugarren helburua langabezia-tasa denboran zehar modu egonkorrean murriztearekin erlazionatuta dago, 2020ko azkeneko hiruhilekoan % 10etik beherakoa izan dadin. **Langabezia-tasa % 10,3an geratu da 2018ko azken hiruhilekoan,** beraz, tasaren 2,3 puntuko murrizketa lortu da abiapuntu egoerarekin alderatuta (2016ko azken hiruhilekoa), eta hori aurrerapauso nabarmena da amaierako helburua betetzeko bidean, hau da, 2020an langabezia-tasa % 10etik beherakoa izan dadin.

